

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

1993ko urriak 29

210. zenb.

**Euskara elkartearen  
jardunaldiak**

Roneo  
**Negoiazteko epea**

**Kanposantu  
aldaketa**





**a, eme...**  
**interiores**

Etxeko ekipamendu osoa

Garibai, 9 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE

Astelehenetan itxita

ZUHAITZ

jatetxea!




I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A  
T  
I

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

# Munduko merkatuan pakea garesti

**P**akea, oso samur eta maiz erabiltzen den hitza da, eta guztion nahia izan arren, behintzat hori pentsatu nahi nuke, eskuraezina.

“Oso ezkorra” edo “etsitua”, pentsatu dezakezue, baina Munduari erreparu txiki bat eman ondoren eta eguneko berriei begirada bat botaz gero, zera ikusten dut:

Burundin estatu kolpea, Haitin beste horrenbeste, Errusian zer esanik ez, Somalian eta Bosnian hor diraute ONU eta mila “pake hitzarmen” tartean nahasturik direla, Ipar Irlandan gerra pizteko pauso batera...

Eta etxean zenbat kalamidade egunetik egunera; uda aurretik hona zenbait pasarte beltz, amest gaiztoak ez direnak, errealitate krudela baizik: Julioren bahiketa, Ertzaintzaren komisaldegian pertsona baten hilketa, ertzainen kontrako erreketak, ertzainen eta gazteen arteko liskarrak eta

burrakajaietan, atxiloketa ‘masiboak’, kontrol basatiak esta estuak, Gurutze Iantzi eta Xabier Galparsoreoren hilkeak, Madrilen atentatua... eta oraindik hainbat eta hainbat orri beteko dituzten kronika beltzak.

Eta gizartea mugitu egiten da alde batera edo bestera: pakearen eta elkarrizketaren aldeko taldeak, manifestapenak gora eta manifestapenak behera, lazo urdinak, lazo berdeak, zenbakiak gora eta behera... Bai, eta nik pentsatzen dut: Eta benetako pakea lortzeko ahaleginetan ote gabiltza?

Bata bestearentzako errespetoa ez dugun artean, uste dut jai daukagula, nahiz eta munduan denentzako lekua izan: berdin urdina, berde, beltz, zuri edo beste edozeinentzat.

IHINTZ



## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabillondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarneta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Xabier Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorri, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimatogia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oriati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Luis Fernandez

**VE ECUADOR**

**Bidaiak**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**I z a d i**

Sendabelarrak, dietetika eta  
kosmetika naturala.

Sendagile naturistaren  
kontsulta

Argaltze terapiak



Sebero Altube, 8 79 75 79  
Kontzeziño, 8 79 03 56

**“PAL”**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**Memesa**

**79 42 22**

**ARTOLA  
KOMERTZIALA**

Zerkaosteta, 3  
Tfnoa: 79 14 40  
ARRASATE

••••

**Almen-eko ikasleak eta industria krisia**

**A**zken hilabeteotan Deba Garaiko industriak jasan duen beherakadari erantzunez, guk ere langileekin elkartasuna agertu nahi dugu. Izan ere, gaur egungo krisiari ezin aurre eginez, hainbat lanpostu kolokan dago. Horren adibidez, orain dela gutxi Roneon bota dituzten 74 langile. Baina hau ez da guztia; poliki poliki lantegi ugari ere eredu hau hartuko du, askoren pobretasunak gutxiengo baten aberastasuna ekar dezan. Gure guraso eta adiskideen lanpostuak babes ditzagun, gure geroa bertan baitago.

**ALMENEKO GOI BATXILER-  
GOKO IKASLEAK.**

••••

**Autopista, Bailararen garapenaren alde?**

**O**hituta gaude, Agintariek, zerbait proposatzen dutenean, helburu bezala, herritarren aurrean garapen ekonomikoa jartzea. Egia da, ostean, beste interes batzuk izaten direla; autopista eta antzerakoak, bearauek egiten dituzten enpresentzat dakartzaten etekin ekonomikoen truke hartzen direnak, komertzio kamaren interesak... Baina, ez

da egia hazkuntza ekonomikoak gaur duela lanpostu berririk sortzen ez? Eta, horrela jarraituko duela, urte morderoxka batean, diote ekonomilari eta hainbat adituk. Bailarako ekonomiaren egoera oso larria da, kooperatiba eta besteetan, lanpostuak murriztea planteatzen baita. Orain arte, Euskalerrian industrializazioaren izenean gure inguruarekiko astakeria ederrak egin dira, gehienak bueltarik gabekoak. “Deba Bailarako Autobidea SA” proposatzen dutenek, bide berdinetik ez ote gaituzten eraman nahi da nere susmoa.

Zoriontasuna, elkartasuna, ingurunea zaintzea eta bizimodu berri batekin zerikusia duen planteamen duak egin behar direlakoan nago. Nahiz eta abiadura handiarekin heldu, autopista/autobidea ez da biderik aukerakoena.

**MIKEL OLABE (Eki)**

••••


**AEDk esker beroenak**

**J**oan zen ostiralean, urriak 23, gure herriko haurrekolako eta OHOKo gaztetxoekin jaialdi bat antolatzen AEDren 10. urteurrena ospatzeko.

Guztira 3.100 haur, mundiala!

Bi astetan zehar, jende ugari ibili zen lanean AEDri sorpresa emateko.

Berez, antolakuntza konplikatuegia bazen ere,



gehienbat ume kopuruagatik, kolaborazioan ibili zen jendeari esker dena erraztu besterik ez zen egin.

Eskerrak eman behar dizkie AEDk, Udalarai eta SFX ikastolari hainbat instalazio utzi arren, baita Iñigo Zubizarreta, Asier Aranguren, Anuska Lasa, Dina Bilbao, Ainhoa Ostolazabal, Felix Iñurrategi, Aitor Zabaleta, Maialen Lujanbiori eta Jon Anduezarri esku bat botatzearren.

Arrasate Kirolak, Lora-mendi Kirolak, Kajoi tabernak eta Trikitik ere AEDren eskerrik beroenak merezi dituzte.

Baita ikastetxeei ere beraien kolaborazioagatik.

Eta zer esanik ez, egunero egunero lanean ibili diren hainbat begiralari, bai eta ostiralean bertan esku luze bat bota ziguten 60 lagunei ere!

Jaso itzazue esker beroenak AEDren eskutik!!!!

Eta hurrengo zer da AED? -galdetzen duenari....

AED denok gara! erantzun izeaiozue!

**AED**

**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheha Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**HIES EKIMENA**

**Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.**

**Tfnoa: 79 26 99**

# Izango zinateke organo emailea?



**Erne Izarzelai**  
**Fagorreko langilea**  
**(60 urte)**

Hori asko pentsatzeko gauza bat da. Orain baietz esaten dut baina benetako momentua heltzen denean, ez dakit zer esango nukeen.



**Juan Mari Arrillaga**  
**Bankuko enplegatua**  
**(42 urte)**

Ez naiz baina izango nintzateke. Behin hil ezker, zure organoak beste bizitza bat salbatzeko balio badute, zergatik ez?



**Izaskun Otanio**  
**Etxekoandrea (44 urte)**

Ez, ez nintzateke izango. Beldurra diot gai horri.



**Floren Zubizarreta**  
**Jubilatua (71 urte)**

Baina gure adineko jendearen organuak emateko modukoak dira ala? Nire organuak oso zaharrak dira.



**Jone Lete**  
**Ume zaintzailea**  
**(24 urte)**

Bai, baina ez naiz. Ez dut sekula aukerarik izan, baina eukiko banu izango nintzateke, dudarik gabe gainera.



**Jose Angel Etxebarria**  
**Fagorreko langilea**  
**(42 urte)**

Ez naiz organu-emailea, baina inongo arazorik gabe emale egingo nintzateke.



**Mari Karmen Berezibar**  
**Etxekoandrea (64 urte)**

Ez naiz organu-emailea, baina organuak ematea ondo dagoela uste dut.




**Joxe Mari Arriaran**  
**Ikaslea (28 urte)**

Ez nintzateke organu-emaile izango. Emaileak egon arren, gaisotasunak ere hor irauten du. Nire ustez gaisotasuna sortarazten duten gaitzen aurka egin beharra dago.

## Umeentzako moda



Ferrerias Kalea, 34  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 97 86



LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Igualetoia ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 79 98 58  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz ..... 45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (iberduero) ..... 79 05 81  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta  
 Erabiltzaileen Elkarte ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterongo liburutegia**  
 Monterra ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 29**  
 Egunez: J.A. Irizar, Erguin.  
 Gauez: Camacho, Oxirondo.

**Larunbata 30**  
 Egunez: Ruiz, Magdalena  
 Gauez: Puy, Barrenkale.

**Igandea 31**  
 Egunez: J.A. Irizar, Erguin.  
 Gauez: Puy, Barrenkale.

**Astelehena 1**  
 Egunez: A.M. Morales, San Andres.  
 Gauez: Guallar, San Antonio.

**Astearte 2**  
 Egunez: Azcoaga, Ferrerías.  
 Gauez: Estella, Matxiategi.

**Asteazkena 3**  
 Egunez: S. Español, Iturriotz.  
 Gauez: Mozos, Pedro Deunaren.

**Osteguna 4**  
 Egunez: Corcuera, Musakola.  
 Gauez: Camacho, Oxirondo.

**29 OSTIRALA**

**ZINEA**

“La maté porque era mía”. 7etan eta 10etan.

**AFARI JAIA**

Bertsolariak,txalapartariak..  
 Elorrioko polikiroldegian,  
 gaueko 9,30tan.

**ELKARRI SINADURAK BILTZERA ATERAKO DA**



**30 LARUNBATA**

**ZINEA**

“La maté porque era mía”. 5etan, 7,30tan eta 10etan.

**HERRIETAKO EUSKARA ELKARTEEI BURUZKO JARDUNALDIAK**

AEDk antolatuta.

**ELKARRIREN SINADURA BILKETA**

Mahaiak kalean jarriko dira.

**KONTZERTUA**

“Hodei Beltza” eta “Jaque Al Rey” talde eibartarrekin. Gazte-txean. Gaueko 9.00etan.

**31 IGANDEA**

**ZINEA**

“Huevos de oro”. 5etan, 7,30tan eta 10etan.

**HERRIETAKO EUSKARA ELKARTEEI BURUZKO JARDUNALDIAK**

AEDk antolatuta.

**“HUEVOS DE ORO”**

“Jamón Jamón” pelikula gustatu bazitzaizun, seguru pelikula hau ikustera joatea pentsatu duzula. Baina zuzendaria bera izan arren eta protagonista ere bai, filme honek ez du hark zuen txispa. Zuzendariak aurreko pelikula bezelako zerbait egiteko asmoa zuen, baina azkenean zerbait nahasia eta loturarik gabekoa atera zaio. Amodioa, sexua, handinahia, ametsa eta mendekua nahasten diren filme honetan, Javier Bardemek, Maribel Verdúk eta María De Medeirosen parte hartzen dute.



Asteburu honetan, euskaltzale ugari bilduko da euskararen munduan ezagunak diren AEDk antolatutako Euskara-taldearen jardunaldietan. Bi egunetan zehar aztertuko diren gaiak hainbat pertsona etorriko da. Jardunaldiak, LKSk egoitzan egingo dira, zapatu ugariak izango dira. Hitzaldia ematera ere, eta domekan.

**1 ASTELEHENA****ZINEA**

"Huevos de oro". 5etan, 7,30tan eta 10etan.

**MEZA**


"Danok Bat" elkarteak antolatua. Hildako bazkide guztien omenez. Frantziskotarren elizan. Eguediko 12,30tan.

**2 ASTEARTEA****ZINEA**

"Huevos de oro". 7etan eta 7,30tan.

**JOSE LETONA BEKA 1993**

Bekaren helburua, XVI. mendeko Arrasateren gaineko ikerketa lana burutzea da. Bekaren iraupena 10 hilabete-koa izango da. Diru-zenbate-koa, 750.000 pezetakoa. Beka jasotzeko beharrezkoa da lizentziatua edo maila bereko titulouduna izatea. Eskatzaileek hainbat agiri aurkeztu beharko dituzte. Beka horretarako osatuko den epaimahaiak adjudikatuko du. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Arrasateko udalera.

**GEOGRAFIAZKO INFORMAZIO SISTEMETARA HURBILPENA**

**UNEDeko Geografia Heziketak antolatuta. Ikastaroa abenduaren 3an hasiko da, eta otsailaren 4ean bukatu. Parte hartzaileei agiria banatuko zaie. Matrikula, 45.000 PTA. Izenematea, azaroaren 26ra arte. Ikasle kopurua mugatua izango da, eta aurrengo matrikulatuek izango dute lehentasuna.**

**3 ASTEAZKENA****"POESIA ETA HAURRA"**

Juan Kruz Igerabide poetaren hitzaldia. Arrasaldeko 7etan, Monterronen.

**4 OSTEGUNA****HBren ASANBLADA**

Arrano elkartearen Arrasaldeko 7etan. Arrasateko Herri Komiteak antolatuta.

**AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA**

Amodiozko gutunen II. lehiaketa antolatu du Berrigararak. Lehiaketan 1979an baino lehen jaiotakoek har dezakete parte. Lanak euskaraz aurkeztu beharko dira. Gutunen gehieneko luzera, bi orrialdetakoa izango da. Lanak Berrigarara bidali beharko dira, urtarrilaren 17a baino lehen.

**GARAPEN PERTSONALA**

Datorren asteburuan, azaroaren 6 eta 7an, garapen pertsonalean laguntzea egingo da. Ikastaro hau, norberaren ezagutza sakondu, komunikatzen ikasi edo ongizate handiagoa lortu nahi dutenei zuzendua dago. Ikastaroa emango dutenak: Carmen Corredor, psikologo kliniko, eta Jose Luis Armendia, Yoga eta Masai irakasleak. Tailer hau Arrasateko Yoga Elkarteak antolatu du. Argibide gehiago nahi baduzu, dei egin, 793576 telefonora.

**SANTIAGO ONAINDIA IKERKETA BEKA**

Zornotzako udalak, euskal literaturaren alorrean ikerketa sustatzeko asmoz, ikerketa beka antolatu du. Banakakoak nahiz lantaldeak izan daitezke hautagai. Lanak euskaraz, gaztelera nahiz frantsesez aurkez daitezke. Beka 800.000 PTAkoa izango da. Dokumentazioa aurkezteko epea azaroaren 15ean amaitzen da.

“[Indarkeriaren arazoan] Begibistakoena dena salatuta ere ez da emaitzik lortu: ETAk ez duela askapen nazionalerako bere bidean urrats bat bera ere aurreratzerik lortu. Ez Nafarroako gaian, ez presoengan, eta gutxiago kontsentsu nazionala lortzean ere (eta hori oinarritzakoa da bere burua iraultzaitzat duen mugimendu batentzat), ETA-HB akzio-erreakzio bikoteak hutsa lortu du. Baina hala eta guztiz ere, aurrera jarraitzen du, Euskal Herrian asko estimatzen den ezaugarri bat dute eta: izorrazteko gaitasuna. (...)

**Antton Perez de Callejak** 93-10-13 **EL MUNDO**  
PAIS VASCO

“Kooperatiben Lege honekin hutsune batzuk gure kalterako bete direla uste dugu, eta kooperatiba bakoitzeko barne araudia eta MCCko kongresuetatik sortutako arauekin batera, pertsonala hurbilagotik zaindua izateko balio izango dutela, bizitza kooperatibo, partehartzaile eta pluraleko egiazko prozesuaren garapean ebitatuz.

Horregatik, informazioa garrantzitsua dela uste dugu, Legea eta bere ondorioak hobeto ezagutu eta kooperatiba bakoitzean eztabaidatu behar ditugula uste dugu, eta hurrengo legeak egiterakoan kooperatibek zeregin aktiboa izango dugula espero dugu. Ekonomia eta legeak legegile, ekonomilari eta korbatadunen eskuetan bakarrik uzteko garrantzitsuegiak direla uste dugu. Gure esku dago.”

**Bittor Gotik** 93-10-18

**egin**

[altzaga-Urbinari buruzko Informazio Gune Partehartzaileei buruz] Beste zerbaitek funtzionatzen ez duelako metodologia hau jarri behar izatea sentitzen dugu. Tresna moduan, ongi eramaten bada, transparentziaz egiten bada, baliagarri izan daiteke; baina sistema demokratikoan bizi bagara, horrek ere eman behar luke beretik nahiko. (...) Ez dadila izan administrazioak aurrez pentsatuta daukan zerbaitek justifikatzeko. Borondate kontua da dena”.

**Xabier Zubizarretak** 93-10-23

**EUSKADI**  
IRRATIA

## Zenbat jende dago herrian trasplantearen zain?

**A**urten, hiru arrasatearri trasplantatu diote giltzurruna, eta beste zortzi gaiso dira trasplante beharrean daudenak. Horregatik eta batez ere organo emale gutxi dagoenez, arrasatearrei ere emale izateak duen garrantziaz hitzegin behar genie-la erabaki genuen.

Hasiera batean joan zen astebukaeran egitea pentsatu genuen, baina eguraldiak ez zigun lagundu eta beste asteburu bate-tarako uztea pentsatu genuen.

Egia esan, organoak lortzeko aukera benetan txikia da. Ospitalean hiltzen diren organo emaleetatik, ehuneko bata bakarrik edukitzen baititu bere organoak emateko moduan. Nahiz eta datua hor egon, beste zerbaitek ere eduki behar dugu kontutan. Hau da, %15a organuren bat emateko moduan egoten da baina organu emalea ez delako, ez ditu ematen. Beraz, honek erakusten du, gizarteak oraindik gai honen inguruan sentikortasun nahikorik ez duela.

Beste bizi ematea baino ekintza politagorik ez dago, eta hau, guztiok ulertu beharko genuke. Jendeak uste du, gaisoari organua bizirik dagoela kentzen zaiola, eta hori ez da egia. Gaisoari, hil arte, ez zaio organurik kentzen. Kasu honetan gainera, organuak ez ditugu esperimenduak egiteko eskatzen. Bizi izaten jarraitzeko, beste baten organua behar duten gaisoak daudelako eskatzen diogu jendeari organu-emale izatea.

Gai honen inguruan lanean ari garen zenbait arrasatearrek, Santo Tomasetan edo kalera irteteko asmoa dugu. Gure nahia, guzti honi buruzko informazioa ematea da eta jendea dohaintza orria betetzeak duen garrantziaz oharberaztea.



**Pilar Sanchez**  
Arrasateko ALCEReko ordezkarria

**FAGOR**



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Autokarabanak alokatzen dira!

**METS**  
T A I L E R R A K

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezko piezak eta osagarriak.





## Roneokoen itxialdia eta pankarta udaletxean

Joan den asteko lanuzte orokorraren ondoren, Roneoko langileek itxialdia egin zuten udaletxeko pleno aretoan. Langileak txandakaturuz egon ziren pleno aretoan, asteazketik ostiralera. Aldi berean, kaleratzeen aurkako pankarta bat jarri zuten udaletxeko balkoi nagusian. Gogoratu duzuen bezala, duela hiru aste pleno batean onartu zen mozio baten ondorioz, debekatuta dago udaletxean pankartarik jartzea, eta udaltzaingoari dagokio hori ebitatzea.

## Xilofagoen aurka

Joan den astean hasi eta burutu ziren San Frantzisko elizan bertako erretaularen fumigatze lanak. Metilobromuroa da Oprocom etxeko fumigatzaileak erabiltzen hasi direna XVIII. mendeko erretaula ederra jaten ari den sitsaren aurka. Egurra jaten duten zomorro xilofagoak gas horrekin hiltzeaz gain, aurrerantzean erasorik gerta ez zedin, gai aiposekin igurtzi bat emango zioten erretaulako egurrari. San Frantzisko elizako erretaularen gaitza oso gauza komuna da garai horretako egurrezko lanetan.

## Organuak ematearen aldeko kanpaina

Alcer elkartekoek ez



## Goikobalu eta Beethovenen 9. sinfonia

Kontzertu bero eta ederra eskaini zuten igandean Goikobalu abesbatzak eta Ukrainiako Kiev-eko irratitelebistaren orkestrak, Octav Calleya zuzendari errumaniarraren batutaren gidaritzapean. Programan, obra ezagun bat: Beethoven-en 9. sinfonia. Eskenatokian 210 lagun, kantari eta joleen artean, lau ahots solista barne. Arrakasta osoa lortu zuten orkestra eta abesbatzak, txalo ugari eta beroek aitortu zuten bezala. Aipagarria da Arrasate Telebistak kontzertua grabatu egin zuela eta saltzen jarriko dituela horren bideozintak. Arrasateko Goikobalu abesbatzaren historia laburrean erronka garrantzitsua izan da sinfonia hau, dudarik gabe.

zuten mahairik jarri Portaloian joan den asteburuan, iragarri zuten bezala. Giltzurrunetako 15 bat gaisodaude Arrasaten dialisiari esker bizitzen, transplante bat behar dutela. Beren auzia kalean plazaratzeko eta jendea organu-emaile egin dadin kontzientzeko kanpaina egin zuten Alcer elkartekoek joan den asteburuan. Arrasatekoek, azkenean, eguraldi txarragatik, ezin izan zuten kalera irten. Lerro hauetan behintzat, gera dadila beren eskaera humanoaren berri.

## AEDren haurrentzako jaia

3.100 haurrek hartu zuten parte joan den ostiraleko Arrasate Euskaldun Dezagunek umeentzat antolatutako jai erraldoian. Herriko kiroldegietan, adinka banatu ziren umeak, eta hainbat jolasetan ibili ziren, Anuska Lasa, Felix Iñurrategi, Asier Aranguren, Iñigo Zubizarreta eta hainbat ezagunen gidaritzapean. Festa erraldoi hau AEDk bere 10. urteurrenarako antolatu dituen ekintzetako bat izan da.

## Peruko artisautza

Peruko eskulan eta artisautza miresteko eta erosteko aukera egon zen joan den astean Arrasaten. Arrasateko Hirugarren Mundu Taldeak antolatuturik, Ameriketako herrialde hartako objektuen salmenterakusketa egon zen Sebero Altube plazan igandea arte. Egun horretan, Peruren gaineko filmin emanaldia egon zen bertan.

## HBko Hizkuntz Politika

HBk Hizkuntz Politika-ren inguruan prestatu duen txostena aurkeztu zuen asteazkenean Arrasaten. Ez zen Arrasateri buruzko dokumentu bat, ikuspegi nazionaletik erredaktatutakoa baizik.

## Nafarroa Oinez: markak hausten

Kilometroetara antolatutako autobus andanaren marka hautsi zuen Nafarroa Oinez-erako deialdiak. Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateren artean antolatutako autobusen artean, mila pertsona baino gehiago joan ziren Altsasura.

### JAIOTZAK

- Irune Gomez Diaz. 20an.

### HILDAKOAK

- Angel Vicente Martinez. Urriaren 24ean. 76 urte.
- Josefa Aranzadi Arrieta. 24ean. 83 urte.

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABAleta

## Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

## ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



JABIER RETEIGI \*

## Oinarrean, gaur sekula baino gehiago, pertsona

**Historiak**, bai Eskolarenak eta bai mugimendu kooperatiboarenak, erakusten digunez, pertsonarengan eta sorkuntza-gaitasunean fedea izanez soilik egin liteke aurrera guztientzako aukera aberatsak eskainiko dituen gizarte baten sorkuntza. Nolanahi ere, sorkuntza-gaitasun horren helburuek, helburu horiekin askatasunean eta kooperazioan bat datozenekin, ahalegin hori justifikatzen badute.

Pertsonarengan fedea izateak bultzatu ditu Eskola eta gure gizarteko zenbait arlo, enpresen antolakuntza zeharo aldatzera, pertsonen elkargoak sortuz, kapitalen elkargoak beharrez. Arrasateko Mugimendu Kooperatiboa dugu fede honen adibide, ekonomiaren arlo desberdinetan enpresa kooperatiboak izanik. Banketxeetatik hasita industriaraino, kontsumotik produkziaraino, hezkuntzatik ikasle-enpresetaraino, guztiek entseiatu eta balioztatu dituzte pertsonarengan (partehartze eta ekintzarako ardatz gisa) oinarritutako formu-

la kooperatiboak.

Eskolaren eta Talde Kooperatiboaren ikuspegi aurrerakoi hau Enpresa Gestiorako teknika berrien kontzeptioarekin indartu da. Teknika horiek, bai antolakuntza arloan zein kalitate osoko tekniketara, pertsona hartzen dute antolakuntzako ardatzat eta eginkizuna dute motibazioarako funtsezko elementutzat. Pertsonak enpresan duen partehartzea, lehiakidetasun enpresarialaren iturri da gaur egunean eta teknika horiek antolakuntza kooperatiboan barnearatzearekin, enpresa egiturak indartzen ditugu, enpresaren egitura orokorra, barne egitura produktiboarekin koherentziaz lotuz.

Baina gaur egungo gizarteak asko aldatu ditu pertsonalaren formakuntza maila eta informazio maila bezalako oinarritzko kontzeptuak. Oso epe laburrean, "peoi gizarte" batetik, "batxiler edo titulu nagusidunen gizartera" pasatu gara; mende hasierako gizarte ia alfabeto batetik, pertsonen portzentaia garrantzitsu batek uni-

bertsitate-ikasketak dituen gizarte batera. Formakuntzara bidea egin zuen goi-klase estuetatik, formakuntza maila handiak langile-klasean gertatzera igaro gara.

Bestetik, komunikazio-teknika modernoek eta teknologia berriek gizartearen sare osoan informazio maila garaia izatea bermatzen dute. Pertsona prestatua, informazio maila altua daukana, eta partehartze eta askatasunerako gogoia duena, horixe da gaurko gizartearen eredua. Aspaldian, ordea, pertsona ez horren prestuek, umiltasunez onartzen zizuten gizarte-alor estu batek inposatzen zizkien erakundeak.

Aldaketa soziala helburutzat duen edozein erakunde izan behar du kontuan errealtate hau, eta borondateak bultzatzen dituzten elementuak ere izan behar dituzte kontuan. Gaur, sekula baino zentzu gutxiago daukate jarrera paternalistek edo despotismo ilustratuak, gizartearen aurrerakuntza gizarteko alor horiek kontuan izan gabe bilatu behar dela diotenak. Gaur, sekula baino gehiago, pertsonarengan fedea izateak dauka zentzua, pertsonarengan eta ilusioz beteriko partehartze soziala bultzatuko duten erakundeengan. Horregatik, gizarte-egitura modernoan antolakuntza-ezaugarriek hiru alderdi izan beharko dituzte kontuan: **Lidergo soziala, balioen motibazioa eta kooperazioa.**

\* **EUSKO JAURLARITZAKO INDUSTRIA SAILBURUORDEA**

(Idazki hau Eskolaren 50. urteurrenaren ekitaldi akademikoan eskaini zuen hitzaldia- ren atal bat da, erredakzioan itzulia)

## USTEAK USTE

### DETAILEAK DIRA

**Arrakastatsua, jendetsua, joan den igandeko kontzertua. Diagnostiko garbia atera dut bertan izan eta kometarioak batuz: orkestra, urrutiko intxaurra bezala; solistak, neu ere ohartzeko bezain gaizki; Goikobalu, indartsu, erronka handi horri dotore erantzunez. Baina musika arloan ni bezain ezjakin dena beste gauza batzuetan fijasen da horrelakotan, eta nahi gabe ere zenbait detaleri begira jarri.**

**Prezioa, hasteko. Aurreko astekoaren aldean merkea zen, baina prezio-kalitate erlazioaz, ez dakit, ez dakit. Gonbidapen eta jarlekuen erreserbek ere eman zidaten zer pentsatua, erreserbatutako jarleku batzuk hutsik eta Arrasaten musika munduan izen handia duen norbait "oilategian" (eta otarik altuenean gainera) esertzen ikusi nuenean. Gauzak galdetuta jakiten direnez, poztu naiz erreserba eta pribilegioen kontu horrek Goikobalun eta Arrasate Musika- len berbalekua eman duelako. Betidanik tradizio musikala izan duen herri honek antolaketa-ohitura ere hartu egingo baitu, ibilian ibilian. Zorionak, musikazale, hala gertatzen bada.**

ARANTZAZU LOIDI

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

BLUSAS  
OSAGARRIAK  
POLTSAK

**XATHO**

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban  
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie



Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ



"Jazten" aldizkariaren hiru ale berezi kaleratuko dira asteburuan.

## Euskalgintzaren hiriburua izango da Arrasate asteburuan

Euskalgintzarentzat gertakari garrantzitsua dago asteburu honetan Arrasaten: herrietako euskara elkarteei buruzko I. Jardunaldiak, AEDk bere 10. urteurrenaren inguruan antolatutakoak. Bi egunez esperientzia gero eta ugariago hauen inguruko hainbat txosten presentatuko dira jardunaldietan, 18 txostengileren eskutik. Hitzaldiak arintzeko, poesia emanaldiekin eta bertsoekin osatuko dira tarteak.

Entzuleen artean, 140 lagun matrikulatu dira, antolatzaileek hasieran uste zutena baino gehiago, eta partehartzaileen artean gonbidatuak ere nabarmendu behar: Mari Karmen Garmendia, Hizkuntz Politikarako idazkaria; Jean Haritxelhar euskaltzainburua, edo Xabier Zubizarreta alkatea, besteak beste. Jardunaldien lekua LKSko egoitza izango da. Partehartzaileak herrialde guztietakoak dira, guztira 50 bat herriko ordezkariak egongo dira Arrasaten.

Herrietako euskara elkarten fenomeno

nahiko berria da. AED, hein handi batean, aintzindari izan da eta, hortaz, beterano samarra da. Beste herri askotan azken bi-hiru urte hauetan sortu dira gehienbat, eta makina bat tokitan oraintxe ari dira elkarteak sustatzeko ekimenean. Jardunaldi hauek guztien arteko lehenbiziko elkartzea izango dira. Hala ere, taldeen artean ez dago lotura formalik, eta ez dirudi horrelako "koordinakunderik" edo sortuko denik ere. Besteak beste, administrazioek halako mugimendu zabaletan nahiko interes gutxi erakutsi dutelako orain artean. Horrez gain, EKBk, euskalgintzako indarrak koordinatzea helburu duenak, ez du predikamendu handirik euskara taldeen artean; AED bada EKBko partaide, baina beste herri elkarterik ez.

Jardunaldiekin batera, AEDk 'Jazten' aldizkariaren hiru ale kaleratuko ditu. Bitan jardunaldietako txosten guztien bilduma egingo da, eta hirugarrenak AEDren 10 urte hauen balantze zabal bat dakar.

### Araba 2000 plana eta autopista

Araba 2000 plan estrategikoko arduradunek Maltza-Urbina autopista egitearen aldeko iritzia egin dute publiko. Beren ustez, N-1 errepidearen bideak bikoizteaz gain, beharrezkoa da autopista. Planeko buruek "proiektuko partehartze publiko eta pribatuaren gaia eta finantziatorako baldintzak lehenbailehen argi daitezen" eskatu dute gainera. Plan instituzional horretako arduradunen ustez, Arabak behar duen obra da Maltza-Urbina autopista.

### Apotzagako hilerria

Leintz bailarako ondatsun etnografikoko bitxitako bat, Eskoriatzako Apotzaga auzuneko hilerria, Euskal Kultur Ondarearen Inbetario Orokorrean sartu du Eusko Jaurlaritzak. Apotzagako kanposantua euskal hilarri tradizional ikusgarriak biltzen dira, nahiz eta nahiko modernoak diren, ez antigoalekoak. Horregatik, Jaurlaritzako Kultur Ondarearen arduradunen ustez, Apotzagakoaren garrantzia berebizikoa ez bada ere, "antzinako elementuak eta egestura modernoak bat egiten dira bertan era armoniatsuan, eta ingurua gure herriko hilerrietako tradizioarekin uztartuta geratu da".



**PAZI-OLA** S.A.

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA


Zaldispe kalea, 2  
ARRASATE Tfnoa 79 29 94

### OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerias, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE



Gizarteaz gabineteko Hans Harms soziologoa, IGPetako prozesuko antolatzaileetako bat.

## Igande honetan itxiko dira Maltzaga-Urbinarako buzoiak

Igande honetan amaituko da Maltzaga-Urbina proiektua eztabaidatuko duten Gu-neetara (IGP edo NIPak) proposamenak aurkezteko epea. Ezaguna den bezala, autopista proiektu horren inguruan buzoi batzuk ireki dira urrian, eta dagoeneko zenbait alternatiba aurkeztu dira bertara. Aldi berean, zenbait herritarren eta talde ekologisten eskutik, Deba Bailara Bizi-Bizirik taldea eratu da, bailara defenditu eta autopistaren aurka egiteko helburuaz.

IGPetara proposamenak aurkeztu dituzten taldeen artean, Eguzki, Eki, Mendia Bizirik eta Amilotx daude. Proposamen horien ardatza: hondamendi ekologikoa ekar de-

zakeela autopistak bailararentzat, eta obra hori egitearen onurak ez direla batere argi ikusten.

Herri Batasunak ere proposamena egin du, garraiobideak bailararen ikuspegitik garatu behar direla esanez. Gatzagan ere sinadura-bilketa bat eratu da eta IGPetara txosten bat aurkezteko asmoa bazegoen, ARRASATE PRESSEK jakin duenez: autopista beharrean, Arlaban konpon dezaten eskatzea da Gatzagako ekimen horren funtsa.


Buzoiak itxi eta gero, Gizarteaz soziologia gabinetea, Guneen prozesua antolatu duena, txostengileekin kontaktuan jarriko da azaroan zehar.

## Gabonetako argiak

Gobernu Batzordeak ez du onartu aste honetan Gabonetako kale argiteriaren adjudikazioa. Gaia aurrekontuak bozkatu zirenean onartuta geratu zen, EAJK egindako emendekin baten haritik eta PSE-EEren aldeko botoekin, baina orain, Gobernu Batzordean gutxiengoan geratu dira jeltzaleen botoak. EAJK gaia beste pleno batera eroango duela iragarri du, eta datorren ostiralean izango da pleno hori seguruenik.

## Pabilioiak eta diskoteka

Azeri deritzon inguruan, Bedoñarako kaminoaren bidegurutzearen ondoan, obrak egiteko zenbait inizatiba urbanistiko aurkeztu dira udaletxean azken aste hauetan. Pabilioi industrialak egiteko baime-na eskatu dute alde batetik, eta bestetik Axeri baserriaren tokian, diskoteka bat egiteko informazioa eskatu dute. Udalak ez du lan horientzat oztoporik ikusten orain, proiektuak zuzen eta egoki eginez gero.



## URONDO elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa  
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76  
ARRASATE

# Borondatezko bajentzako epea adostu dute Roneon

Joan den asteko, greba, ixialdi eta manifestazioen ondoren, Roneoko gatazkan tarte bat zabaldu da datorren azaroaren 3a arte. Aste honetan Donostiako lan delegazioan egindako negoziaketan ondoren, langileek baja inzentibatuak har ditzaten epea zabaldu da. Hau da, kalera-tzeak borondatezkoak izan daitezen aukera zabaldu da, iazko abenduan lantegia utzi zutenen baldintza beretsuetan. Orduan 6 milioi PTAko indennizazioekin joan zen kalera langile talde bat.

Dena den, enpresa zuzendaritzak lanpostuak sobera daudela esaten segitzen du. Roneoko 188 langileetatik 74 kaleratzeko proposamena



Joan den asteko manifestazio handiaren irudi bat.


egin zuen hasiera batean, baina orain alternatiba arinagoa aurkeztu du: 51 baja behar direla diote, eta horietatik 11 berriro kolokatuko lirake-

ela beste zerbitzu batzuetan (garbiketa industrialean, goarda lanean eta garraioan). Beste 23 langile aldizkako enplegu-suspentsioen bidez txan-

dakutjko litateke lanean.

Lortutakoarekin, enpresa-komiteak bere eskaera batzuk jasota geratzen direla uste dute, baina oraindik derrigorrezko kalera-tzeak inolaz ere ez dituztela onartuko aurreratuko dute. LAB sindikatuaren ustez, bestetik, "txantaia" dago enpresak proposatutakoan, borondatezko baja hartu ezean, langileak indennizazio txikiarekin kalean geratzeko beldur izan daitezkeelako, lan delegatuak enpresaren eskaeraren aldeko erabakia hartzen badu.

Azaroaren 4ean ez bada adostasunik lortzen, langileek berriro ere mobilizazioei ekingo diete langileek.



#### Ohe bikoitzerako multzoa:

- Koltxoia estaltzeko manta bikoitza
- Gaireko manta bikoitza, artile kolorekoa eta diseinu italiarrekoa
- 2 almohada

## AZKENEAN, LUXU HAU ZURE ESKU

Artilezko Merino konjuntuo ospetsuak ez dira 100.000 PTA ordaindu behar

Gaur 38.500 PTA  
**BAKARRIK**

Bitartekari barik  
Eskurtsio barik  
Hitzaldi barik  
Opari barik  
Jaialdi barik

12 urteko  
**GARRANTIA**

Hauxe da ondo lo egiteko botika, izan ere zu lo zauden artean:

- Gorputzaren temperatura konstante mantentzen da.
- Artrosia arindu egiten da.
- Erreumaren minak gutxitu egiten dira.
- Zirkulazioa hobetu egiten da.



**Dena Merino artile purua, lanolinatan aberatsa**

## GUZTI HAU DAGOENeko EZ DA LUXUA

Izan ere, LANA PLUSek zeure etxera eramango dizu seriotasunez. Seriotasuna, garantiako 12 urteengatik. Seriotasuna, bere jatorrizko agiriengatik. Seriotasuna, gustora geratzen ez bazara dirua itzuliko dizugu eta.\*


\* Produktua 7 egunetako epean bere jatorrizko paketeen itzultzen badiguzu

Dei egiguzu (96) 514 22 44 telefono zenbakira, astelehenetik igandera, 11etatik 22etara. Tamaina desberdinei buruzko informazioa osoa emango dizugu.



Arrasate musikaleko bi irakaslek, **Mertxe** eta **Isabellak**, Errusiako orkestrako bakarlariekin eta zuzendariarekin afaldu zuten

Bueno tabernan. Euskal Herrira etorritz gero ezin joan, bertako afari giroa nolakoa den ezagutu gabe.



**Kanariar irtetara joan zaigu Sabin Arrieta udazkeneko oporraldiak igarotzera. Teide inguruan ateratako argazki hau bidali digu, gutaz ahaztu ez dela erakusteko. Ez dakiguna da, Teide mendira igo ote duen ala ez.**

Goizeko bostetan apostua egin, eta eguerdian bete. Ostiralean, pelota desafio garrantzitsua burutu zen herrian. **Carmelo** eta **Txominek**, aurrez aurre izan zituzten **Papano** eta **Pirau**. Partidua emozionatea izan zen eta azkenean bigarren bikoteak irabazi zuen: 18 eta 22.



Laso

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-  
JARTZEAK  
Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84



Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Orain bi urte **Joxe Zeziagak**, "Hermoxok", Lurdeseko amabirjinari eskari bat egin zion. Eskaria betez gero, Lurdesera oinez joango zela agindu zion, eta nahia bete zitzaionez, halaxe egin

zuen. Aurten ere, eskari batzuk egin dizkio, eta baita Ama Birjinak bete ere. Horregatik, Lurdesera oinez joan da Arrasatetik. 306 kilometro egiteko nahikoa izan ditu zortzi egun. Ez da marka makala!

**Beti pentsatu izan dugu, Monte Del Dragón esan nahi zuela Mondragón hitzak. Alfonso Urkidik (1894-1965) egindako ikerketak jaso ditu Patxi Lasak. Ikerketa hau en arabera, "senadi gaineke bazterreko zingira", adierazi nahi du Mondragón hitzak. Teoriak, oker daudela demostratu ezean, guztiak posible.**

## IZEN PROPIOAK

● **Maria Eugenia Iñurieta**, 38 urte, harreman publikoetako arduradun berria izango da Ikerlanen. Maria Eugenia bergarakoa da eta batxilergo laborala eginda dauka. Ingelesa, frantsesa eta alemana ere menperatzen ditu. Orain arte Ederlanen egon da lanean.

● **Victor Manuel Perez**, 30 urte, eskualdeko merkataritza arloari doaineko zerbitzua emateko aholkularia izango da. Victor Manuel ordiziarra da, eta Ordiziako udaletxean ere zeregin berean ari da lanean. Victor, Olatz Murumendiarazen ordezkari da lanean.

● **Ramón Menjón Bilbao**, 53 urte, LKSko zuzendari komertzial izendatu dute. Ramón donostiarra da eta aurrez Usurbilgo Berriola lantegian ere lan berean aritu izan da.



Benetako artistak dira herriko eta baita lehen saria irabazi ere. hainbat jubilatuen elkarteak antolatutako eskulan lehiaketan parte hartu, eta baita lehen saria irabazi ere. Keramikaz egindako lanak, pinturak, gantxilozko lanak... denetik aurkeztu zuten. Argaz-

kia, hilaren 4tik, 11ra Donostiako udaletxeko bajuetan jarri zuten erakusketan ateratakoa da.

lurrindegia  
perfumeria

**ZARRAOA  
EL ARCA DE NOE**

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4  
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

**Onduline**

URALITA

**TXOMIN HERIZ**

eraikuntzarako  
materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18  
ARRASATE

# LORAMENDI KIROLAK



## HOTZA HELDU DA

### GARAI HONETAN PRESTA ZAITEZ NEGURAKO:

- FORRO POLARRETAN BERTSIO GUZTIAK,
- JERTSEAK
- PRAKAK
- TXAKETAK...

**ETA, BETI BEZALA,  
KALITATE ETA MARKA  
ONENEKIN**



**'CARFRA' SUKALDE  
ALTZARIAK  
5 URTETAKO  
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN  
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU  
ENPOTRATUAK  
ISPILU-ATE  
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA  
KANPOKO ATEAK**



**of  
CARFRA**

Vanesa



#### ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

**DeLonghi**

marka  
italiarraren  
banatzaile  
ofiziala



# Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



## Indisziplina mozteko zorrotasuna

Indisziplina kasuak gehitu egin omen dira asteburu honetan, eta antolatzaileek neurri zorrotz batekin erantzun dute: abisua eman diete hiru talderi. Baina haratago ailegatzen da antolakuntzaren oharra: gauzek bide horretatik segitzen badute, hurrengoan ez da abisurik egongo, zigortara pasatuko dira zuzenean. Eta zigor latzak izango omen dira, gainera: bi puntu kendu gutxienean, isti-

luetan inplikaturako jokalaria kale-ratzea, edo talde osoa kalera. Abisua, beraz, talde guztiei doakie, ea hobeto portatzen hasten diren. Bestetik, lau partidu hauekin sailkapenak perfilatzen doazela ikusten da. Sorpresa gehiegi ez da ageri lau taldeetako sailkapen tauletan, eta nabarmentzen direnen artean fabritofama hori daukaten ekipoak ikusten dira.

### ZUK-NAHI taberna

Goizeko 7etatik aurrera zabalik  
PINTXO EDERRAK

Erdiko kale, 18 Tfnoa: 79 65 72

Garaiko perretxikoak urte  
guztian zehar!!

### RUTH GATZAGA

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57  
ARRASATE



- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
TRIKITI	4	4	0	0	22	4	<b>8</b>
SUM. UGARTE	4	4	0	0	29	6	<b>8</b>
ARLUTZ	4	4	0	0	19	4	<b>8</b>
JEY JULIWER	4	3	1	0	17	6	<b>7</b>
ANBOTOSTE KT	4	3	0	1	12	6	<b>6</b>
KOXKAS	4	2	1	1	15	10	<b>5</b>
BIZKORRAK AVE. T.	4	2	1	1	13	12	<b>5</b>
BERANGO SUK.	4	2	0	2	11	8	<b>4</b>
ALLA KUIDAUS	4	2	0	2	14	16	<b>4</b>
WHISK. LINDE	4	2	0	2	10	13	<b>4</b>
ZOTZ	4	2	0	2	13	19	<b>4</b>
IKATZ	4	1	1	2	11	19	<b>3</b>
RESAKAS	4	1	1	2	13	15	<b>3</b>
SOKOAKOAK	4	1	0	3	10	20	<b>2</b>
UGLYS TXINATO	4	1	0	3	14	17	<b>2</b>
ETXE MOBILI.	4	1	0	3	9	19	<b>2</b>
EUSKAL INDARRA	4	1	0	3	8	20	<b>2</b>
BAYERN LENITZ	4	1	0	3	5	13	<b>2</b>
FRAGUEL GOL	4	0	1	3	4	9	<b>1</b>
AUF DEM KOFFER	4	0	0	4	5	18	<b>0</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ARGI IBILI	4	4	0	0	36	13	<b>8</b>
ZULOAK	4	4	0	0	20	11	<b>8</b>
LENITZ GARAGAR.	4	3	1	0	18	7	<b>7</b>
IRATI STS	4	3	0	1	17	9	<b>6</b>
ARR. KIROLAK	4	3	0	1	16	9	<b>6</b>
ALPEN KRAUSSER	4	3	0	1	20	17	<b>6</b>
NOTXINGAN FLO.	4	2	1	1	15	13	<b>5</b>
DANOK LAGUN	4	1	3	0	9	8	<b>5</b>
BUKANAK	4	2	0	2	16	12	<b>4</b>
BETRAYER	4	2	0	2	20	14	<b>4</b>
GANBELAS	4	2	0	2	14	11	<b>4</b>
TRONKOTEAK	4	2	0	2	18	17	<b>4</b>
MONTERREY Z.B.	4	1	1	2	15	13	<b>3</b>
FANCY BOIS	4	0	2	2	9	16	<b>2</b>
KOPYPREST	4	1	0	3	9	18	<b>2</b>
EXC. LETE	4	0	2	2	9	19	<b>2</b>
OOOLE	4	1	0	3	8	18	<b>2</b>
OJO AVISORE	4	0	1	3	14	22	<b>1</b>
DIEGO ANTONIO	4	0	1	3	10	20	<b>1</b>
ATXANTA KE TE...	4	0	0	4	8	34	<b>0</b>

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
NABARROS	4	4	0	0	14	5	<b>8</b>
LOS HEREDIA	4	4	0	0	15	7	<b>8</b>
FOSFOROS	4	3	1	0	27	6	<b>7</b>
ARR. KRISTALDEGIA	4	3	1	0	19	9	<b>7</b>
KIRTEN TROPEL	4	3	0	1	17	10	<b>6</b>
MIKELOS	4	2	1	1	16	11	<b>5</b>
HIREI	4	2	1	1	18	15	<b>5</b>
P'EPELUS	4	2	0	2	19	10	<b>4</b>
TXOKO TABERNA	4	2	0	2	10	10	<b>4</b>
SIBILIUS ROVER	4	2	0	2	8	9	<b>4</b>
BORROCKN ROLL	4	2	0	2	12	26	<b>4</b>
KAKAJAURI	4	1	1	2	12	11	<b>3</b>
LOS DALTON	4	1	1	2	18	19	<b>3</b>
FOTO IMAGEN	4	1	1	2	14	14	<b>3</b>
ADELAIDA HAIZEA	4	1	1	2	9	11	<b>3</b>
LEYA	4	1	1	2	14	25	<b>3</b>
MOTZ	4	1	0	3	10	14	<b>2</b>
MZK GANBELAS	4	0	1	3	7	18	<b>1</b>
POTROSORRI	4	0	0	4	5	12	<b>0</b>
CORINTO TABERNA	4	0	0	4	9	31	<b>0</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
AC SURCOS	4	4	0	0	25	8	<b>8</b>
NUOVO TABERNA	4	3	1	0	15	5	<b>7</b>
ZULUS	4	3	1	0	25	12	<b>7</b>
CARBUROS	4	2	2	0	22	8	<b>6</b>
REVOLUTION ROCK	4	3	0	1	17	7	<b>6</b>
POTROAK LORA.	4	3	0	1	23	12	<b>6</b>
TOVARITX	4	3	0	1	14	12	<b>6</b>
KRISKIBALDA	4	2	1	1	11	4	<b>5</b>
TUTTIFRUTI	4	2	1	1	24	15	<b>5</b>
LASO ARREGI	4	2	1	1	13	9	<b>5</b>
GURE LEKU	4	2	0	2	10	13	<b>4</b>
BODISCA	4	1	1	2	12	14	<b>3</b>
MACCABI DE LEV.	4	1	1	2	10	15	<b>3</b>
ILUNA TABERNA	4	1	1	2	12	24	<b>3</b>
FRANCISCANERR	4	1	0	3	14	18	<b>2</b>
LOS DIMY	4	0	2	2	9	14	<b>2</b>
KOAK LAIT	4	1	0	3	10	16	<b>2</b>
ELISABETH	4	0	0	4	9	29	<b>0</b>
EZKIÑAKO HONTZAK	4	0	0	4	5	20	<b>0</b>
SOLANO 7 MARES	4	0	0	4	8	33	<b>0</b>

**GABONETARAKO: gida Komertziala**

**ADI!**

**Profesional, dendari, enpresari**  
**Zuk nahi baduzu, dohainik ere ager zaitezke**

**ARRASATE PRESekin batera bidaliko da etxeetara**  
**Dei egin 77 08 15 tfnora**

**BELARRIRA**

◆ **Kartel iragarlea.**

Zenbait babesleren laguntzaz, emaitza eta ordutegiak iragartzen dituen kartela berritu egin dute aurtengo denboraldirako. Honako etxeen laguntza du kartelak: Mikel Lasa aseguruak, Meca, Omu mosaikoak, Casa Bueno jatetxea, Telleria auto-eskola, Elisabeth, El Carmen eskaiolak, Lesagasbaster, Eskiña, Beatriz oinetakoak, Leniz garagardotegia, Ispilu taberna, Kataide jatetxea, Gure-Leku, Garrido-Ugarte parketak, Rumba taberna, JMA, Arrasate Kirolak, Kajoi Taberna, Udaleko gazte-zerbitzua eta AUKEA.

◆ **Korintotarren erantzuna.** 'Korintotarrei epistolak' izan du eraginik. Baloi bila ez joateagatik zigorra (bi puntu kentzea) jaso eta gero, azken partiduan baloia urrundu eta, zast!, takarraran joaten ziren bila: baloiak ez zuen kanpotik urrun minutu erdi ere egiten. Hala ere, galdu egin zuten, eta punturik gabe segitzen dute.



**Aste honetan honako partidu hauek destakatuko ditugu: Ganbelas - Zuloak, Betraye - Leintz Garagardotegia eta Los Heredia - Nabarros. Arreta berezia azken partidu horri, bi taldeak baitaude C taldeko taulako buruzagitzan, punturik galdu barik orain artean. Beste-tik, Gure Leku - Tovarixtx partiduan, igoal arbitroa zaindu beharko dugu, Irati STSkoa izango baita, arbitratze txarragatik aste honetan abisua jaso duen taldekoa.**

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Auf dem Koffer 2 - Whiskeria Linde 3  
Anbostoste KT 2 - Berango Sukaldeak 0  
Alla Kuidaus 5 - Etxe mobiliario 3  
Arlutz 4 - Fraguél Gol 1  
Bayern Lenitz 0 - Jey Juliwer 5  
Bizkorak Avenida tab. 4 - Resakas 3  
Euskal Indarra 1 - Suministros Ugarte 12  
Ikatz 2 - Uglys Txinato 7  
Koxkas 6 - Zotz 2  
Sokoakoak 1 - Trikiti 6

**C TALDEA**

Txoko taberna 2 - Potrosorri 0  
Arrasate Kristaldegia 2 - Fosforos 2  
Adelaida Haizea 1 - Hirei 1  
Corinto Taberna 1 - Kirten Tropel 7  
Borrokn Roll 5 - Los Dalton 4  
Foto Imagen 1 - Mikelos 5  
Kakajauri 4 - MZK Ganbelas 0  
Leya 1 - Pepelus 10  
Los Heredia 3 - Sibilius Rover 2  
Motz 1 - Nabarros 4

**B TALDEA**

Atxanta ke te merece 1 - Tronkoteak 7  
Argi Ibili 6 - Bukanak 4  
Alpen Krausser 6 - Diego Antonio 5  
Arrasate Kirolak 7 - Fancy Bois 2  
Betraye 4 - Irati STS 5  
Danok Lagun 2 - Leintz Garagardotegia 2  
Excavaciones Lete 3 - Notxingan Florest 3  
Ganbelas 8 - Ooole 2  
Kopyprest 1 - Zuloak 5  
Monterrey Zubi Bel 4 - Ojo Avisore 4

**D TALDEA**

Bodisca 1 - Tuttifruta 5  
Iluna Taberna 4 - Elisabeth 3  
AC Surcos 7 - Franciscanerr 3  
Nuevo Taberna 2 - Kriskibalda 1  
Carburos 3 - Laso Arregi 3  
Ezkiñako Hontzak 3 - Maccabi de Levantar 4  
Gure Leku 0 - Revolution Rock  
Koak Lait 3 - Tovarixtx 4  
Los Dimy 4 - Zulus 4  
Ptroak Lorategi 8 - Solano 7 Mares 1

**Musikazaleentzat**

**Bideo-zinta aparta**

Beethoven-en 9. Sinfonia Kiev-eko Orkestra  
+ Goiko-Balu Abesbatza

**Dei egin 77 08 15 tfnora**



**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 30**

**Zaldibar**

- 08.50 AC surcos - Kriskibalda
- 10.00 Ganbelas - Zuloak
- 11.00 Anbostoste KT - Etxe Mobiliario
- 12.00 Alpen Krausser - Fancy Bois
- 13.00 Alla Kuidaus - Fragul Gol
- 14.00 Koak Lait - Zulus
- 15.00 Borrockn Roll - Mikelos
- 16.00 Auf dem Koffer - Berango Sukaldeak
- 17.00 Ezkiñako Hontzak - Revolution Rock
- 18.00 Ikatz - Zotz
- 19.00 Nuevo Taberna - Laso Arregi

**Iturripe A**

- 10.00 Adelaida Haizea - Kirten Tropel
- 11.00 Bayern Lenitz - Resakas
- 12.00 Atxanta ke te merece - Bukanak
- 13.00 Corinto Taberna - Los Dalton

**Iturripe B**

- 10.00 Euskal Indarra - Uglys Txinato
- 11.00 Koxkas - Trikiti
- 12.00 Argi Ibilii - Diego Antonio

**Igandea 31**

**Zaldibar**

- 08.50 Betrayer - Lenitz Garagardotegia
- 10.00 Bizkorrak Av. taberna - Suministros Ugarte
- 11.00 Sokoakoak - Whiskeria Linde
- 12.00 Arlutz - Jey Juliwer
- 13.00 Txoko Taberna - Fosforos

**Iturripe A**

- 10.00 Bodisca - Elisabetz
- 11.00 Excavaciones Lefe - Ooole
- 12.00 Arrasate Kristaldegia - Hirei

**Iturripe B**

- 10.00 Kopyprest - Ojo Avisore
- 11.00 Kakajauri - Pepelus
- 12.00 Carbuos - Maccabi de Levantar

**Astelehena 1**

**Zaldibar**

- 08.50 Motz - Potrosorri
- 10.00 Danok Lagun - Notxingan Florest
- 11.00 Foto Imagen - MZK Ganbelas
- 12.00 Potroak Lorategi - Tuttifruti
- 13.00 Los Heredia - Naborros

**Iturripe A**

- 10.00 Gure Leku - Tovarixtx
- 11.00 Arrasate Kirolak - Iñiti STS
- 12.00 Monterrey Zubi Bel - Tronkoteak

**Iturripe B**

- 10.00 Leya - Sibilius Rover
- 12.00 Iluna Taberna - Franciscaner



# Bi jokalarari ukabilkadaka eta arbitro petral bat

Lehenengo astean denboraldiko lehen zigorren berri ematen genuen. Aste honetan, zigorrik ez, baina hiru abisu eman dituzte Zaldibarko antolatzaleek, eta aurrerantzean oraindik zorrotzagoak izango direla iragarri dute. Irati STS, Ikatz eta Uglys Txinato taldeak dira aste honetan abisu hori eroan duten taldeak, bi gertakari desberdinetatik.

Iratiri dagokionez, talde horri Kriskibalda - Fosforos partidurako arbitroa bidaltzea egokitzen zitaion. Baina, antza denez, arbitroak benetan paper eskasa egin zuen partidu horretan, ez zuen *bat buena* eman, eta talde biak sentitu omen ziren kaltetuta. Antolatzale-taldeko ikuskatzaile bat ere izan

zen partiduan (2-2 amaitu zen), eta arbitratze penagarriaren lekuko izan zen. Horregatik eman diote abisua Iratiri, hurrengoan arbitro egokiagoa bidaltzeko. Zigorrik ez oraingo, ez bada asteburu honetan berriro arbitratzeko agindua, normalean atsedena izan behar zuten arren.

Ikatz - Uglys Txinato partiduan izan zen beste intzidentea, aurrekoa baino okerragoa hau. Falta gaizto baten ondorioz, elkar joka hasi ziren bi taldeetako bi jokalarari. Hiru ukabilkada eman zizkioten elkarri, eta horregatik abisua bi taldeentzat izan da. Iaz ere gertatu zen partidu batean bi jokalaririk elkar jotzea, baina orduan bi partiduko espultsioa ezarri zitzaizen jokalariei.



## MASAIA IKASTAROA

Noiz: azaroaren 6, 13, 20 eta 27, larunbatetan

Ordua: 11etatik 1etara

Nork emana: losu Aranzabalek

Adina: mugagabea

Prezioa: 1.000 PTA.

Informazioa eta izenematea:

— AEDko bulegoetan

— 77 12 28 Tfnoan.

Maila: • Hastapen maila

• Masaia lasaigarria

• Kirol masaia eta terapeutikoa

AEDko Gazte Mobidie



# Kanposantuak


# Aldaikoa hil da, San Kristobalgoa jaio

Luis Fernandez

**Pertsonak hiltzen diren bezala, kanposantuak ere hiltzen dira batzuetan. Aldaiko kanposantuari azken ordua iritsi zaio. Domu Santu egunaren biharamunean, datorren asteartean, San Kristobalgo kanposantu berria inauguratuko da. Tartean, 300 milioiko obra bat, eta eztabaida ere bai, kanposantu zaharreko panteoi jabeek bertan enterratzen segitu nahi dutelako.**

Altamiratik gora dago San Kristobalgo kanposantu berria: oinez igotzeko urruti eta altuan. Leku hotza da, kanposantu normal bat baino hotzagoa: ez dago berdegunerik, hutsik dago, lorerik ez dago, zementozko eta egurrezko pabilioi handi batzuk besterik ez. Enterramenduak, lurrean egindako zulo batzuetan izango dira, zulo bakoitzean, nitxo mordo bat. Jon Etxaniz Arrasateko enterratzailearen iritziz, kanposantu zaharra baino "inpersonalagoa da". Tokiaren aseptikotasunak atzera egiten du, esan liteke, hildakorik ezean, bizitasuna falta zaiola.

Aldaiko kanposantu zaharrik beste tankera bat dauka. Panteoi ugari dago, beste bizitasun bat, eta erdigunetik hurbil dagoenez, bisitatzeko ere askoz errazago dago. Hala ere, hilerri berria irekitzearekin batera, Udalak zaharrean enterramenduak amaitzeko



190 panteoi daude Aldain eta 125eko jabeek ez dute handik joan nahi. asmoa dauka, nahiz eta oraindik ez den datarik jarri. Baina badirudi datorren urtariletik aurrera, ez dela hildako gehiago sartuko Aldain, eta guztiak San Kristobalera eroango dituztela.


Erabaki honek bildu egin ditu Aldaiko panteoien jabeak: beren familiakoen hondarrak dauden tokian segitu nahi dute hurbilekoak enterratzen. 190 panteoi inguru dira, eta 125eko jabeak bildu dira, abokatu batek ordezkaturik, udalaren aurrean beren

tzuk erostea, baina erdi-prezioan. "Gure jarrerarako lehen motiboa sentimentala da", dio De la Mazak. "Gero, panteoi bat eduki badaukate-la, besterik behar barik, eta azkenik, motibo ekonomikoa dago".

Jose Mari Loitik, hirigintza arloko zinegotziak, arzoa kontu handiz ukitzekoa dela uste du. Baina alternatiba asko ez dagoela ere onartzen du: "Ezin dugu pentsatu bizitza guztian egongo garenik kanposantu birekin". Oraingoz, ordea, udalak Aldai erabiltzen utziko dietela uste dute De la Mazak ordezkaturako panteoi-jabeek. Loitiren ustez, "denok zedidu beharko dugu apur bat".

## 10 URTEKO EPEA

Eta zer gertatuko da Aldaikoarekin? Bertan gordetzen diren lehen enterramenduak 1857 urtekoak dira, eta lehen panteoia, 1890ekoa, Okendoko kontearena. Tokia eginez joateko, hildakoak enterratu eta 10 urtera, hezurak ateratzen dira, familiari abisu eman eta gero. Senideek eroan egin ditzakete hondarrak, edo bestela familia-agrupazioetara joaten dira, hezurtegi gisa, familia bakoitzak daukan nitxora. Kanposantu berriarekin, aurrerantzean Aldain ehorzketa gehiago egingo ez denez, ez da hezur hustuketarik egin beharko, baina kanposantua itxi eta 10 urtera, hori bai, behera bota beharko da han geratzen dena. Ondoren, seguru aski, berdegunea izango da Aldai, hala ager-



San Kristobalgo hilerrian, lurrean egindako zuloetan daude nitxoak, eta porlanezko harlauza handiekin estalita geratzen dira.

tzen da behintzat arau subsidiarioetan.

Oraingoz, apurka-apurka hasiko da erabiltzen San Kristobalgoa. Orain artean, pertsona bati bakarrik eman zaio lur hilerri berrian: abuztuan hil zen andrazko bati, bere familiak dagoeneko panteoi bat erosita zuenez, bertan enterratzea eskatu zuten, eta herriko parrokoak, Jose Mari Astigarragak, espreski bedeinkatu zuen kanposantua ehorzketa hartarako.

Baina auzia airean dago oraindik. Erabaki argirik ez dago, eta badirudi hurrengo asteetan behintzat bi hilerri izango dituela herriak martxan (baina lehengo langile berekin, Etxaniz enterratzailera eta Gonzalo Arregi bere laguntzailera). Gero, seguru aski, Aldaikoa itxi egingo da, hemendik urtetara ahaztu egingo dugu, eta noizbait, Roneoko obretan gertatu zen bezalatsu, akaso norbaitek hezur batzuk aurkituko ditu, nongoak diren ere jakin barik.

## Zein garestia den hiltzea

Maria Agirre

Hilkutxa erosi, eskelak jarri, meza ordaindu... hiltzeak ere gastua ekartzen du. Horregatik sarri entzuten da gure artean, "zenbat kostatzen den hiltzea!" esaldia. Prezioak ugariak diren arren, hona hemen Funeraria batetara jotzen baduzu, gutxi gorabehera ordaindu beharko duzuna.

- Hilkutxak: merkeenak, 40.000 PTA eta garestienak 200.000 PTA.

- Hilautoa: 15.000 PTA.

- Hileta dokumentuak: 35.000 PTA.

- Eskela txiki bat egunkarian jartzeak, adb, Diario Vascon 25.000 PTA.

- Meza: 3.000 PTA.

- Lorak: 10.000 eta 27.000 PTA tartean.

- Euskaditik kanpora eramatea, adb, Santanderrera eramatea: 275.000 PTA in-guru.



# B

**atzuek erraustea nahiago izaten dute.**

**Horretarako**

**Deriora jo**

**beharra dago.**

Hala ere, Arrasatear gehienak kofradiako bazkide dira. Bazkideek urtero kuota bat ordaindu behar izaten dute. Familiako buruak 1.250 PTA ordaindu behar ditu. Ezkondua badago, 800 PTA gehiago, honela emaztea ere bazkide eginez. Azkenik 520 PTA seme-alaba bakoitzagatik. Kofradiak hainbat zerbitzu, baina ez guztiak, doan eskeintzen ditu: hilkutxa, hilautoa...

Ondoren lurperaketa lektorke. Hona hemen kanposantu berriko prezioak: nitxoek, 37.000 PTA balio dute eta hamar urtetarako izango dira. Lau pertsonendako panteoia aldiz, 900.000 PTA kostatzen da.

Batzuk erraustea nahiago izaten dute. Honetarako Deriora jo beharra dago. Erraupena 83.000 PTA kostatzen da eta hildakoa bertara eramatea, 25.000 PTA.

● *Jon Etxaniz*

# Enterratzailea eta saguzarra

**'Primera Plana' filmean, zera esaten dio Walther Mattauk Susan Sarandoni: "Hobe duzu enterratzaile batekin ezkontzea, eta ez kazetari batekin". Hemen gaude bada, buruz buru, enterratzailea eta kazetaria, fama txarreko ofizioan biak. Jon Etxaniz antzuolarra, 12 urte enterratzaile Arrasaten, kanposantuan duen bulegoan harapatu genuen. Bulegoko dekorazioan, diseinatutako saguzar bat paretan iltzatuta.**

— Arazo berezirik ogibide honekin?

— Lana ez da txarra. Txarrena psikologikoki izango da. Eskuz lan gutxi da. Jendearekin hitz egin eta egon behar izaten da eta, badakizu, jendea leku honetara penaz etortzen da, eta hartu egin behar duzu...

— Nitxoak hustutzean, jendeak eroan egiten ditu hezurak?

— Batzuek bai. Adibidez, joan zen astean, batek bi erresto eroan zituen. Normalean batzuek bai, badakizu zergatik? Hor hegoaldean nitxoak


eta panteoiak normalean bertirako izaten dira, erositako propietatea dira. Orduan, Palencian, Zamoran edo Extremaduran panteoi bat edo nitxo bat daukanak nahi izaten du erretoak hara eroan eta betiko han sartu. Hemen 10 urterako izaten dira, eta 10 urteak segituan pasatzen dira.

— Ganberradak gertatu izan dira hemen?

— Ertzaintza etorri arte, hori izan zen hemengo arazorik handiena. Gauean sartzen ziren koadrilak, eta goiz aldean agertzen ziren txanpain botilak edo jeringilak. Horrelako gauzeekin ibili ginen 2 edo 3 urte, ia egunero. Gero nik eman nion parte Ertzaintzari, mesedez begiratzeko apurtxo bat. Behin destrozoak ere egon ziren, nitxo bateko kristalak eta apurtu zituzten; bestela ez, nahiko dezente ibiltzen ziren. Beste leku batzuetan izan dira destrozoak, adibidez, Eibarren, Ermuan, Tolosan.

— Erlijosoa zara? Edo baduzu siniskeriarik?

— Beno, ez dut asko sinisten. Zeozertan sinistu egin behar duzu, baina Jaungoikoa edo zeozer konkretua... ez



dakit. Superstizioa? beti egoten da zeozer baina ez .dut ezer arrarorik ikusi hemen inoiz. Behin irakurri nuen liburu batean kanposantuetan espirituek zarata batzuk egiten dituztela, ultratunbako ahotsak edo, eta hori konprobatuta zegoela. Baina hemen ez dut sekula ere horrelakorik sentitu. Nik ez daukat beldurrik hemen. Hori bai, ez nuke apustu bat egingo.

— Autopsiak egiten dira hemen?

— Egin izan ditugu 30 bat autopsia ni hemen nagoela. Gero nola depositoa oso zaharra geratu den, forenseak esan zuen konpontzen ez bazuten, Zumaragara eroateko. Eta orain dela 3 urtetik edo, Zumarragako depositoa egiten dira.

— Gogorra izango da autopsiarena, ezta?

— Niretzako ez, aukera bat da gauzak hurbiletik ikusteko. Polita izaten da, jakiteko zer den bihotzeko infarto bat edo. Eta autopsian ikusten duzu nola geratzen den bihotza: garbitu eta beti agertzen da bihotzaren paretetan zimurtuta, globo bat puztu eta behatzarekin raka-raka egitean bezala, zimurtuta geratzen da. Edo asfixiatuta hiltzen dena, nola jakin? normalean gibelean ez da likidorik edukitzen eta barrua sikua izaten da, baina pertsona hori itota edo asfixiaz asesinatuta hil bada, likidoa geratzen da, bitsa moduan gibelean, eta hori da sintoma bat, ez dela heriotza naturala izan.

— Barkatu galdera, baina zer da horko saguzar hori?

— Hori umearen kapritxo bat izan zen, saguzar hori hartu zuela teilatu batean, eta esan zidan, jo aita, disekatu hau. Lehenago tximeleta bat neukan, baina semea (9 urtekoa) etorri zitzaidanez, ba...

● **"Autopsia aukera polita da gauzak hurbiletik ikusteko, gauzak nolakoak diren jakiteko"**



Eguraldi txar eta hotza izan arren, partaidetza polita izan zuen lasterketak.

# Eskorjatzatik Arrasatera 21 minututan takarradan

**Eskoriatza** - Arrasate krossak nahiko partaidetza polita izan zuen joan den igandean. Arrasate Kirolak etxearen babesarekin, eta Arrasate Atletiko Taldeak antolatuta, lehen edizioa ezagutu zuen froga honek, nahiz eta hurrengo urteetan errepikatzea espero duten antolatzaileek. Irabazle nagusiak Joxe Apalanza (sprint estu baten ondoren) eta Rosi Talavera izan ziren.

138 pertsona izan ziren korrikan Eskorjatzarik Arrasatera, Aretxabaletatik pasatuta: guztira 7.100 metro. Hiru herriak kirolaren bidez batzea da frogaren funtsetakoa bat, eta eguraldi hotz



Joxe Apalanza irabazlea.

eta txarra egin arren, egun berean eta Nafarroa Oinez izan arren, balienteren batzuk izena eman zuten.

Sailkapenetan horrela

geratu ziren gauzak. Senior gizonetakoak: 1.a, Joxe Apalanza errezildarra (20'53''), 2.a Antonio Merino (20'55'') eta 3.a Manu Hurtado (21'42''). Senior emakumeetakoak: 1.a, Rosi Talavera (25'24''), 2.a Pilar Arriola eta 3.a Rosa Agirre arrasatearra.

Kategoria txikiagoetan, gizonetako beterranoetan Enrique Kabiketa izan zen garailea Jose Galanen aurretik. Emakumeetako beterranoetan, Camila Bravo, Maria Eugenia Gonzalezen aurretik. Junior mutilak: Borja Alvarez 1.a eta Beñat Aiastui 2.a. Junior neskek: Amaia Gaztañaga 1.a eta Leire Rodriguez 2.a.

## Eskubaloilarien martxa ona

Eskualdeko 1. mailan nahiko martxa politean dabil Arrasate Kirolak eskubaloi taldea, hasieratik markatutako igotzeko helburu horren atzean: oraingoz, lau partidu, lau garaipen, zortzi puntu. Joan den igandean, Loiolaren kantxan 16-23 irabazi zuten. "Kantxa" baino, hobeto esan beharko genuke "partioa", eskola-taldea baita Loiola eta hala moduzko eskola-partio batean jokatu zen partidua: toki txikia, zuloz eta putzuz betetakoa. Arrasate Kirolakek ez zuen pistoia gehiegi sakatu behar izan, eta garaipena nahiko erraz lortu zuten. Hurrengo partidua konpromezu handiagokoa izango da: Aloña Mendi izango da bisitaria, eta eskualdeko derbia izango da beraz.

## Mendizale gazteentzat


Besaide Mendi Elkarteko gazte-ekintzetarako taldeak egitarau interesgarri bat presatatu du hurrengo hilabeteetarako. Hilean bi igandetan, mendi irteerak egingo dira, eta mendiarekin zeharka erlazionatutako beste hainbat ekintza. Horien artean, azaroaren 7an, mendiko bizikletaz irteera egingo da (izenematerik ez da behar); azaroaren 13 eta 13an, bi eguneko irteera, mendi-orientazioa sakontzeko helburuaz (1.000 PTA), eta azaroaren 28an, espeleologia irteera.

**VE ECUADOR**

Bidaiak

Kontzeziño, 2  
ARRASATE

Tfnoa: 79 14 06



**EGVZKIGRAF**

Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



**PENALTIAK**

● **AEDk kirol kamisetak atera ditu Arrasate Kirolak-en laguntzaz. Kamisetak doan dira, eta Donostiako igandeko munduko maratoi kopan parte hartu nahi duen edonork eskura dezake bat, larunbatean Arrasate Kirolak dendatik pasatuta. Azaroaren 14ean Donostia-Behobia lasterketara doazenei ere emango zaizkie kamisetak.**

● **Uste baino estuago irabazi zuen Arrasate saskibaloi taldeak Gas-teizen, azken minutuetan, baina galtzea zer den jakin gabe segitzen du. Larunbat honetako partidua, ordea, benetan zaila izango da, Loiola Indautxuren aurka, partidurik galdu ez duen beste talde bat.**

# Igeriketa taldeak Arrasaten hasi zuen konpetizio egutegia

Arrasate Igeriketa taldearen eskutik, joan den larunbat arratsaldean Gipuzkoako Neguko Sariaren lehen jardunaldia ospatu zen Musakolako igerilekuan. Nahiz eta urtean zehar, eskolarteko frogak antolatzen dituzten Arrasateko klubekoek, kasu honetan, igerilari federatuentzako frogak izan ziren.

Guztira lau igerilari talde aurkeztu ziren lehen jardunaldi honetara: Ondarroa, Eibar, Oñati eta Arrasate. Hiru frogak desberdin egin ziren Musakolako pizina-ko uretan: 50 metro tximeleta, 400 metro libreak eta 100 metro bularka. Arrasateko ordezkariak zortzi neska eta zortzi mutil izan ziren, eta



Joan den larunbateko frogetako bat.

nahiko polito aritu ziren. Neguko Sari hau ez da froga bakarrean neurtzen, dozenedi bat dira guztira, eta beraz, frogak amaitzen diren arte ez dugu jakingo sailkapen definitiboak.

Denboraldi honetako le-

hen konpetizio frogak ofiziala da Neguko Saria Arrasateko igerilariarentzat. Edonola ere, duela zenbait astetik ari dira egunero entrenatzen Musakola kiroldegiko igerilekuan, arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara.

## EMAITZAK

### Futbola

3. maila: Anaitasuna 1 - Mondra 1  
Emakumezkoak: Intxaurdi 0 - Mondra 8  
2. regionala: Lagun Onak 3 - Mondra 1  
Jub. Ohorezko Liga: Beasain 0 - Mondra 1  
2. jubenila: Urki 0 - Arrasate 8  
Kadeteak, 1. maila: Aloña Mendi 8 - Arrasate 1  
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 1 - Bergara 0  
Haurrak: Arrasate 3 - Eibartarrak 0  
Hurrengoak:  
3. maila: Mondra - Tolosa. Atxabalpe, igan., 15.45.  
Emakumezkoak: Mondra - UDA. Atxabalpe, igan., 12.00.  
Jub. Ohorezko Liga: Mondra - Urola. Atxabalpe, lar., 15.45.  
2. jubenila: Arrasate - Gazteak. Atxabalpe, igan., 10.00.  
Kadeteak, 1. maila: Arrasate - Mutriku. Atxabalpe, lar., 12.00.  
Kadeteak, 2. maila: Arrasate - Almen. Atxabalpe, lar., 10.00.  
Haurrak: Ilintxa - Arrasate. Legazpia, lar., 11.00.

### Saskibaloiak

2. maila: Caja Vital 72 - Arrasate 75  
Hurrengoak:  
2. maila: Arrasate - Loiola Indautxu. Musakola, larunbata, 18.30.  
Sub-23: Arrasate - Zarautz. Musakola, igan., 10.15.  
Jub. mutilak: Ordizia - Arrasate A. Larunbata, 16.00.  
Arrasate B - BKL CAF. Musakola, lar., 16.00.  
Kadeteak, neskek: Almen - Arrasate A. Almen, lar., 10.00.  
Ordizia - Arrasate B. Larunbata, 11.00.  
Kadeteak, mutilak: Eskolapios - Loramendi Kirolak, Tolosa, lab., 10.00  
Arrasate B - Ikastola Urmek. Musakola, lar., 10.00.

### Rugby

Euskal liga, 2. m.: Unibertsitatea 3 - Arrasate 8  
Jubenilak: Arrasate 37 - Bera Bera 0  
Neskak: Arrasate 0 - Durango 63  
Hurrengoak:  
Euskal liga, 2. m.: Algorta - Arrasate. Getxo, larunbata, 15.00.  
Jubenilak: Eibar - Arrasate. Zarautz, larunbata, 16.00.

### Eskubaloia

1. eskualdekoa: Loiola 16 - Arrasate Kirolak 23  
2. eskualdekoa: Zarautz 21 - Arrasate Kirolak 24  
Jubenilak: Arrasate Kirolak 15 - Leitzaran 16  
Hurrengoak:  
1. eskualdekoa: Arrasate - Aloña Mendi. Iturripe, lar., 18.00.  
2. eskualdekoa: Arrasate - Zestoa. Iturripe, lar., 16.30.  
Jubenilak: Urola - Arrasate. Zumarraga, lar., 18.00.

### Pilota

Gipuzkoako klub artekoa:  
Senior, banaka: Arrasate 18 - Beti Poz 17  
Senior, binaka: Alde Zaharra 8 - Arrasate 22  
Junior, binaka: Arrasate 11 - Antzuola 22  
Jubenilak, banaka: Soraluze 18 - Arrasate 8  
Jubenilak, binaka: Azpeitia 22 - Arrasate 14  
Kadeteak, binaka: Bergara 7 - Arrasate 22



## EKINTZA EGITARAUA 93-94 IKASTURTERAKO

- Garapen Pertsonaleko kurtsoak
- Osasun arloa: Elikadura, masaia eta erlajazioa
- Tailerrak: Tapizgintza, Makramea, Pintura, Eskulangintza, Gitarra
- Ikastaroak eta abar

**INFORMA ZAITEZ:**

- famili eta gizarte heziketarako zentruak
- gipuzkoa donostia kubxaren gizarte ekintza
- santa teresa, 12. Tfnoa: 79 04 59. ARRASATE



**J**an Viatorreko ikasleekin ateratako erretratu bat gehiago dakargu, Santa Barbara parkean ateratakoa hau ere. Promozio honetako gela batekoak, honako hauek dira, goiko ilaran ezkerretik hasita:

**Fernando Arana, Pepe Conde, Alberto Azurmen-di, Urizar, Jabi Gorroño-goitia, Jabi Gonzalez, Jabi Aguruiondo, Bitoriano Guridi, Esteban Cifuentes.**

**Fermin Berezibar, Jose Luis Gallo, ezezaguna, Joakin Arevalillo, Juan Jose Beitia, Koldo Etxebarria, Martin Arregi, Angel Guridi eta Julio Ajuria.**

**Rafa Gonzalez, Jose Jabier Zeziaga, Jesus Mari Idigoras, Dimas Castro, Agapito Gonzalez, J. Luis Enekotegi, Jose Antonio Carmona, Felix Hernandez, Julen Arana, Aitor Ansuategi.**

**Josetxo Arana, Luis Gonzalez, Miguel Barreiros, Antonio Garzón, Alberto Errasti, Fausto Carrasco, Jose Inaxio Gastañaga, Kaio Atxa, Aitor Heriz, Imanol Gutierrez.**

**Jon Galdos, Angel Alonso, Roberto Balanzategi, Astondoa, Josu Aranzabal, J. Luis Alvarez, Teodoro Iñurrieta, J. Luis Areta, Eduardo Bujanda eta Joseba Arejolaleiba Villar.**

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**UGARAN**  
jatetxea

Ondo pasatu oporrak,  
gu ere oporrtan gaude  
abuztuan

# RKUZ

# Sukaldeak

**FAGOR** 

Sukalde integratuak

**Banatzaile Ofiziala**

Mitarte, 3  
Tfno-Fax: 77 04 55  
ARETXABALETA



## ALTZARIAK

ETXEKO ALTZARIAK  
DISEINUA - APAINKETA

Araba Etorbidea, 20  
Tfno - Fax: 79 23 51

**Aretxabaleta**


## ELEKTROGAILUAK

TV - BIDEOA - SOINUA  
**expert**  Banatzaile ofiziala

Asuncion, 1  
Tfnoa: 79 10 97



*Elisabeth*  
*Kirol jantzietan kalitatea, prezioetik onenean*  
ARRASATE  
18 TFNOA. 77 14 86



# KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT

Astore, Reebok, Nike,  
Adidas, Mito, Karhu, Avia,  
Saucony, Quicksilver, Libero,  
Linea 7, Asics, Salewa, Bo-  
real, Bestard, Ellesse,  
Lutha, O'Neill, Think Pink...



**ARRASATE  
KIROLAK**


Kontzeziño, 8  
Tfnoak: 79 46 12 / 77 12 47  
ARRASATE



# Errepideak, animalien hilerriak

**Gure** inguruan, gero eta ugariagoak diren autopista, autobia edota beste bide-azpiegitura faraonikoek nimalien populazioan presio izugarria egiten dute, geratzen diren gune natural (edo "erdi-natural") urriak animalien kartzela bihurtzen dituztelarik. Fenomeno hau, "efecto barrera" bezala ezagutzen da.

Egia da, gune horietan libre bizi diren animaliek gero eta oztopo handiagoak izaten dituztela handik hona ibiltzeko. Bestalde, ukalezina da bizitzak mugimenduarekin duen lotura, batez ere animalien gan. Egiten diren eraiketa guztiak arrisku handiko barrera artifizialak dira, honen emaitza zuzenena errepideetan gertatzen diren kolpaketak direlarik. Hauek, izugarriko eragina dute animalien populazioan, murrizketa nabarmena sufritzen dutelarik. Baina, barrera hauek ere, askoz sutilagoa eta, era berean, arriskutsuagoa den ondorio bat eragiten dute, animalien populazioaren fragmentazio edo konpartimentazioaren ondorioz elkartruke genetikorik eza, hain zuzen ere. Honen ondorioak epe luze ikusten dira, ez ditu errepideetan odol arrastorik edo-



ta kolpatutako animalien gorpurik uzten. Horregatik, gehienetan izkutuan edo bigarren plano batean geratzen den ondorio horietariko bat dugu honako hau. Halaber, egindako ikerketen datuak irakurtzen baditugu, ziur asko bat baino gehiago harrিতa geratuko da.

Autobiak eta autopistak

eragindako "efecto barrera"ren kontsolamendu bakarra hegaziengan duen eragin minimo da. Animalia lurtrarrak, eta bereziki ugaztunak, dira kaltetuenak.

Oso ondorio gogorak izan arren, irtenbideak nahiko errazak dira. Faunari barrera hauek gainditzeko bideak zabaltea litzateke irtenbide erraza

bezain ona. Zoritxarrez, arrazoi batengatik edo besteagatik, ez dira bide hauek egiten. Honen arrazoiak bi eratakoak dira:

**a. Teknikoak:** errepide hauek eraikitzen dituzten entpresak, gehienetan, informazio faltan aurkitzen dira, behar diren ikerketak egiten ez direlako, edota egiten direnak (gaur egungo gehienak eskasa) "artxibatu" egiten direlako.

**b. Ekonomikoak:** bide hauek zabaltzeak, dudarik ez, proiektuak garestitu egiten ditu. Bestalde, ingurugiro inpaktoen ikerketak errepidea proiektu fasean aurkitzen denean egiten dira. Era honetan, zuzentze-neurriak sartzeko aukerak galdu egiten dira. Horregatik, estudio hauek errepidea aurre-proiektu fasean dagoenean egin behar dira, behar diren neurriak behin-betirako proiektuan integrazteko.

Guzti honetatik atera daitekeen ondorioa zera da: epe luze begira, ez da posible izango gure fauna kontserbatzea (ugaztun lurtrarrak, batez ere), autobia eta autopistak sortutako "efecto barrera" hura eliminatzen ez badugu.

**UDALAKO INGURUGIRO ESKOLA**

## Datu harrigarriak

**Errepideek, ugaztun batzuegan duten eragina ikusteko, hona hemen Doñanako Parke Nazionalan egindako ikerketa baten emaitza batzuk ("Quercus" aldizkaria, 83. zbk., autorea: Pablo Ferreras de Andres):**

**Biologo hau, Doñanako basakatuen hilkortasuna aztertzen ari da, gazteen sakabanaketaren prozesua ezezik. Azkeneko bederatzi urte hauetan jasotako datuen arabera, bost basakatu hil dira**

**Doñana inguratze duten errepideetan, hau da, basakatuen hilkortasunaren % 20,8a. Kolpaketa guztiak, hamabost kilometrotako tramo batean izan dira. Arrazoi desberdinengatik, tramo hau, basakatuen populaziorako puntu beltz bat da, guri sare nazionalako hainbat punturekin gertatzen zaigun bezala. Beste kasu hauetan saiatzen gara zerbait egiten, baina... basakatuak edo beste animalia batzuk direnean?**

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- **Bilboko parte zaharrean pisua** osatzeko ikasle bat behar da. Dei egin 79 34 51 edo 79 51 30. 7,30etatik 10,30etara.
- **Gela bat dago libre** bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- **Leioan bi ikasle behar dira** pisua osatzeko. Tfnoak: 77 12 00 (lan-orduetan) eta 71 42 10 (Gauetz). Kontxi.
- **Etxebizitza salgai S. Andres auzoan.** 58 m<sup>2</sup>. Guztiz berritua. Egoera ezinhobean. Deitu 79 54 65 tfnora. Ara.
- **Zaragozan pisu bat osatzeko** pertsona bat behar dugu. Tfnoak: 79 52 97 edo 75 19 98.
- **Bilbon, bi pertsona behar dira** pisua osatzeko. Tfnoa: (94) 475 71 72. Oso merke.
- **Familia batek bi ohedun logela** eskaintzen du ikasle edo langileentzat. Konfortablea. Pentsio osoa, erdi pentsioa edo lo egiteko. Interesatuak Jose Luis Iñárriz Pasealekua, 25, bajutik pasa.
- **Isaban apartamentua alokatzen da.** Sukaldegongela, komuna, 2 logela. Interesatuak (948) 11 14 58 tfnora deitu (8etatik 10etara). Juanan.
- **Deustun pisu bat betetzeko** pertsona bat falta da. Tfnoa: 79 14 71.
- **Etxebizitza salgai Obenerrekan.** 80 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 bainu, saloia, sukaldea, berogailua, igo-gailua, eta ganbara ditu. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 61 95.

**Lana**

- **Ekonomia eta Enpresa** Zientziak egindako neskak klase partikularrak ematen ditu: kontabilitatea, matematika, euskera, ingelesa... Tfnoa: 79 26 93. Nerea.
- **O.H.O. ko klaseak ematen dira.** Tfnoa: 79 88 04. Eli. Arratsaldeko 3etatik aurrera.
- **Larunbat goizetan partikularrak** emango nituzke, OHO, BBB edo UBI mailan (matematika, kimika eta fisika). OHOk edozein gai. Tfnoak: 79 46 75 edo 79 23 36.
- **Pertsona batek edozein lan** egingo luke. Tfnoa: 78 00 63. M. Sharif.
- **Esperientziadun gazte bat naiz,** garbiketak eta jende nagusia zaintzeko prest nago. Deitu 79 50 30 tfnora. Jose Miguel.
- **Emakumea esperientziadunak ume zaindu** edo etxeko lanak egingo lituzke. Arantxa. Tfnoa: 79 13 66. Edozein ordutan.
- **Kanguro lana egingo nuke** ostiral eta larunbat gauetan. Tfnoa: 79 65 70. Ainhize.
- **Neska bat O.H.O. ko klaseak emateko prest dago.** Eta euskarazko klaseak ere ematen dira. Deitu 79 25 09 tfnora. Galdetu Anaz.

**Salerosketak**

- **Elur txakurkumeak (Siberian-joski) salgai.** Oso arraza onekoak. Prezio onean. Tfno: 79 57 03.
- **ZERO SETTE trikixita berri-berria salgai.** Prezio onean. Interesatuok dei 79 33 73 tfnora.

- **FAGOR markako 100 litroko termoa** salgai. rezio onean. Tfnoa: 79 07 73.
- **ATLAS XT Plus 512 KB ordenadorea** salgai. Flipp de 3 1/2, 720 KB. Hard Disk 20 MB. Placa CGA/Hercules. Teclado expandido. Monitor Tatung 1422. Tfnoa: 77 07 44.
- **SEAT IBIZA salgai.** SS-X. Egoera onean eta prezio ona. Tfnoa: 77 08 08.
- **Lan aldaketa arrazoi dela,** oso egoera onean dagoen 3 urteko CORSA JOY saltzen dut. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 54 46.
- **Karrerako bizikleta. RAZESA 57 tamainakoa.** Campagnolo Velore kambioak, frenoetako eskutokietan palankadunak. Shinano pedaleak, Kanpagnolo-Athena frenoekin. Rolls sillinarekin. Tfnoa: 79 90 03.

**Denetarik**

- **Pianoak afinatzen dira.** Tfnoa: (945) 44 52 85. Aramaixo.
- **San Judas Tadeori bederatziruena,** Jesusen Bihotz Santua izan bedi maitatua, aintziatua eta babestua mundu guztian orain eta beti. Jesusen Bihotza otoitz gure alde. San Judas etzita daudenei laguntzen diezuna otoitz gure alde. Egizu otoitz hau bederatziru egunez eta zortzigarrenean argitaratzea atgindu. Eragin handikoa da; izan ezazu fede eta mirariak ikusiko dituzu. K. A.
- **Ikasturte honetan egunero Gasteizera joan eta etortzeko.** Interesatuak dei egin (945) 14 00 66. Nieves.
- **Beroki bat galdu nuen asteazkenean.** Meca parean kotxeak garbitzeko dagoen tokian. Tfnoa: 79 90 57. Olatz.

**Aste Gazte**

**Bekak**

- Ararteko Erakunde aritzeko 2 lankidetzak beka, giza eskubideen arloan ikerketak burutu eta prestzeko. Lizentziatura ikasketak 91tik aurrera amaitu dituztenei zuzenduak. Epea: azaroak 3.
- Hezkuntza arloan ikertzaile eta dokumentalistak prestatzeko beka. Lizentziatura ikasketak 90tik aurrera amaitu dituztenei zuzenduak. Epea: azaroak 5.

**Bilborako autobusak**

- "Aixola" ikasleen elkarte egunero arratsalde Bilbora joan-etortzeko autobusak antolatzen dago. Interesatuta bazaudete, eman izena Gazteen-tzako Informazio Bulegoan.
- **Bus abonoak**
- Arrasatetik Gasteizera egunero autobusez zoazten ikasleok abono berezi bat eskuratzeko aukera dugu. Abonoa hiruhilabetekoa da eta 27.500 PTAko kostua du.

**Astialdi-zuzendari ikastaria**

- Bergarako Jardun Elkarteak antolatua, izena emateko azken eguna larunbat honetan da (hilak 30). Ikastaroa asteburuetan, Elosuko etxean burutuko da. Baldintza: begirale tituluduna izatea. Matrikula: 30.000 PTA. Informazioa eta izenemateak: 760819 edo 287488 telefonoetan.
- **Ihardunaldiak**
- Liburutegi Publikoei buruzko VI. Ihardunaldiak, azaroak 11, 12 eta 13 Donostian, Miramar Jauregian. Matrikula: 25.000 PTA.

**"Seme alabarik gehienak bere gurusoak baino argiagoak izan ez baziren, gizakiak ez zukeen aurrera egingo."**


**CAMILO JOSE CELA**

**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

## Z E R N A H I A G O ?

## Eladio Martinez

## Gaztaina saltzailea



- Noiztik lan honetan? Hiru urte daramatzat.
- Zenbat gaztaina saltzen duzu egunean? Aste egunetan 5 k. eta asteburuetan 30 k. gutxi gora behera.
- Hatzazkalak jaten dituzu? Ez, oso zikinak izaten ditut eta.
- Zer amestu duzu gaur? Ezer ere ez, egunez amesten dut nik.
- Zer ez zenioke oparituko emakume bati? Gaztainak erretzeko makina bat!
- Ze ordutan jaikitzen zara? 9.00etan.
- Nondik ekartzen dituzu gaztainak? Galiziatik.
- Nongoa zara? Santanderreko herritxo batetako.
- Dantza egitea gustatzen al zaizu? Bai, asko.
- Lokomotora nondik atera duzu? Ez dakit, ni ez naiz negozioaren jabea.
- Zein egunkari erosten duzu? El Correo eta Marca.
- Udan zein lan egiten duzu? Izozkiak saltzen ditut.
- Zein liburu duzu orain zure mesanotxean? El nombre de la rosa.
- Animalia izatekotan, zein animalia izango zinateke? Lehoia.

## BERTSOAK

Udazkenetik negura  
(Doinua: Ikusten dezu goizian)

Etixeratuta frutuak  
zuhaitzak buru soilduak  
ostro danak orbelduak  
zeru aldetik agur egiñaz  
egaran doaz usoak  
topatzen babeslekuak  
ordu asko ditu gauak  
atea jo du neguak.

Neguaeren maratila  
edur txingor da naspilla  
ez da izan hor debilla  
larritan nola etorri ohi dan  
zartuta gaudenon billa  
entzun munduan gurpilla  
gure deadar umilla  
jator portatu dadilla.

AGARRE

— ARTE —  
**AZCOAGA**

*Altzari, Erregali, Apainketa eta Proiektuak*

# Gogoko egingo zaizun proiektua

Orain, zure etxerako aspaldidanik amesten duzun proiektua egiterakoan, hurrengo **hamabi hilabeteen finantziazioa interesik gabe** lortuko duzu. Eta gainera inongo banku edo kutxatatik pasatu gabe. Interegarria, ezta? Etor zaitez bisitatzera.

Gral. Alava, 32.— Tfnoa: 23 03 69 — GASTEIZ

# “Dragoi Bideo Produktora” E.H.ko 6. Bideo Lehiaketaren irabazle

**Andoingo Soinu eta Bideo Eskolako lehenengo promozioako dira. ATBren hastapen lanean aritu ziren. Duela bi urte Eskoriatzako audiobisual sailean master bat egin zuten. Udaltxeko arrisku-soldata programan sartzea lortu zuten eta harrez geroztik, “Dragoi Bideo Produktora” sortu zuten Iban Ayesa, Iosu galdose eta Xabier Elduaieen gazteek. “Euskal herriko Enpresa eta erakundeentzako 6. bideo Lehiaketa” prestigioduna irabazi dute orain.**



esan daiteke. Gu, batez ere, sari honen lorpenak aurrera jarraitzea animatzen gaitu. Sari hau irabazteak beste edozein produktorearen maila berean gaudela demostratu digu, hau da, maila bereko bideoak edo eta hobeak egin ditzakegula dakigu orain.

— Zertan datza bideo irabazlea?

— Udalako Ingurugiro Eskolari buruzko bideo bat da. Eskoletako arduradunei zuzendua dago, hau da, Udala auzoan ingurugiroko gauzak lantzen dituen eskola bat dagoela jakinarazi nahi die bideo honek gainontzeko eskolei.

— Zer esan nahi du sari honek hain produktora gazte batentzat?

— Batez ere errekonozimendu garrantzitsu bat. Sari honek ez du inolako konpentzazio ekonomikorik ematen, hots, “prestigio” sari bat dela

— Eta zer du zuen bideoak besteek ez dutena?

— Gure ustez bideoaren tratamendua izan da faktore desberdintzailea. Oso bideo polita eta erakargarria da. 10 minutuko iraupena du eta musika desberdinez osatua dago, hau da, giro soinitik musika sentimentaleraino. Hori bai, inork ez digu musika berririk konposatu.

— Orainarte zein bideolan egin dituzue?

— Beno, guk orainarte 3 bideo egin ditugu, kontuan izanda 6 hilabete besterik ez

daramatzagula enpresa honetan, ez dago batere txarto. Hoietako bat udaltxeak agindutakoa izan zen, bestea Ingurugiro Eskolari buruzkoa eta hirugarrena ETEOrentzat. Aurretik ere beste zenbaitzu egin genituen baina ez geunden enpresa moduan antolatuta.

— Bideo produktoren artean konpetentziarik ba dago?

— Bai, asko gainera. Dena den, produktora hauek hiriburuen inguruan kontzentratzen dira, Gasteiz, Bilbo eta Donostia aldean batez ere. Deba bailaran ez dago hainbeste bideo produktorarik baina hala ere konpetentzia nabari da ere.

— Sari hau irabazteak, lan eskeintza gehituko dizuela uste duzue?

— Ez, ez dugu uste saria irabazteak lan eskaintza gehiago ekarriko digunik. Normalean gu gara bezeroen bila joaten garenak, gure lana komentatzen diegu eta behintzat, “existitzen” garela jakineraztzen diegu. Hori bai, hemendik aurrera gure kalitatea frogatzen duen faktore bat dugu gure alde eta hau, oso garrantzitsua izan daiteke enpresentzat, bideo produktora bat edo beste bat kontratatuta erabakitzeko orduan.

## LABURRAK

### Argazkilaritza ikastaroa

Joan den asteazkenean hasi zen udaltxeko Gazte Zerbitzuak antolatutako argazkilaritza ikastaroa. Joan den urtean ere antolatu zen eta oso harrera ona izan zuen, plaza guztiak beteta gelditu bait ziren. Dena den, 10 pertsonendako plazak besterik ez daude eta orainarte zortzik eman dute izena. Ikastaroa astelehen eta asteazkenean izango da arratsaldeko 7etatik 9etara hain zuzen. AEDko argazki laborategian izango da eta Joseba Valles argazkilariak emango ditu klaseak.

Hastapen ikastaroa izango da, hots, kamararekin sekula ibili ez direnentzat zuzendua dago. Reflex kamara erabiltzen irakatsiko da, baita zuri-beltzeko argazkiak errebelatzen ere. Ikastaroko parte-hartzaileek ez dute inolako materialik eraman behariko, baina 1.000 PTako matrikula ordaindu behariko dute. Ikastaroak 20 orduko iraupena izango du eta abenduaren lehenean emango zaio bukaera. Dena den, informazio gehiagotarako, Gazte Zerbitzuko 770065 telefonora dei egin eta izena emateko asmotan bazabiltza, azkar ibili, bi plaza bakarrik geratzen dira eta.

**V. O. Version Original**  
General Alava, 16 - Tfnoa: 13 33 39 - GASTEIZ

**JOSU**  
TXOKOLATEGIA  
KAFETEGIA

Elkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66



## AEDren "Arrasate 93" literatur lehiaketaren epea amaitzear

Aspaldi dago zabalik lanak entregatzeko epea baina halere, laster itxiko dela gogoratu nahi dizuegu. Lehiaketaren oinarriak freskatzeko, hona hemen hainbat ohar: Bost modalitateetan parte har dezakezue, komiki, argazki, diapositiba, bideo eta literatur modalitateetan hain zuzen ere. Hamazortzi urtetik beherako gazteentzat, maila berezi bat egongo da. Bereizketa honek, irabazteko aukera handiagoa eskeintzen die literaturzale gaztetxoei, askotan zaila izaten baita nagusiekin lehiatzea. Gogoratuko duzuen bezala, hiru literatur esparru egongo dira aukeran partehartzaileren artean, ipuina, poesia eta bertso-paperak. Ez ahaztu dena den, bideo modalitatea ere hor dagoela. Lan guztiak euskera hutsean idatzitakoak izan beharko dute eta gogoratu, Deba Garaian bizi edo ikasten duten guztiak hartu dezaketela parte. Azaroaren 5a baino lehen aurkeztu beharko duzu lana, beraz, nonbait gordeta duzun poesia goxo horri hautsa kendu eta AED elkartera eraman. Irabazleen berri abenduaren 22an emango da. Gogoratu, irabazleen lanekin, liburuxka bat argitaratuko dela.

# San Frantzisko Elizako erretaula sitsak janda

Aita Agirretxe aitak ez du gogoratzen noiztik darabiltzan arazo honekin. Duela 5 urte heldu zen bera elizara eta ordurako erretaula zuloz beteta zegoen. Arazo honekin behingoz bukatzeko erabakia hartu dute.

San Frantzisko elizako ate nagusitik sartuz gero, urre koloreko erretaula eder bat ikus daiteke. Erretaulatik 30 zentimetrotara egonez gero bakarrik nabari daitezke 1730ean eraikitako erretaula honek dituen mila zuloak; goitik bera beteta dago. Nahiz eta itxura ona duen, barne estuktura osoa janda dago. Egun batetik bestera bertan bera jausteko arriskua zegoen. Dena den, ez da erretaula mindutako zati bakarra, egurrezkoa den guzti hori dago sitsez beteta: Alboetako erretaulak, 6 konfesategiak, organoa eta koruko sileria.

### "ANOBIDOS" FAMILIAKO "XYLOFAGOAK"

Sits hauek, "Anobidos" familiakoak dira eta Xylofago izenez ezagutzen dira. Dena den, familia honetako bi Xylofago mota aurkitu dira: "Xestovium Rufovillosum" eta "Anobium Punctatum de Geer" izenekoak. Lehe-



San Frantzisko elizaren ikuspegi bat.

nengoak erretaularen behelka afektatzen du eta bigarrenak goikaldea. Erretablo honek oso hezetasun handiko egoerak jasan ditu eta honek izugarri lagundu du zits hauen agerpenarako. Arraultze ugari aurkitu zen barnekaldean, baita sitsek egindako "galeria" edo "pasilo" ugari ere.

Fumigatzeko erabakia hartu eta Urriaren 18an eliza itxi egin zen. Fumigazio enpresakoek erretaularen tamainuko (114 m<sup>2</sup>) andamio bat eraiki zuten eta plastikoz estali zuten guztia. Fumigazio lanek bi fase dituzte eta astelehenean bertan eman zitzaien hasiera lehen faseari. Bromuro de Metilo izeneko gas pozoitsuaz fumigatu zen

eliza. Pozoi hau mortala gerta daiteke gizakientzat arnastuz gero; hori dela eta, ez zen inoren sarrera permititu ez elizara ez eta kalistroetara. Urriaren 20an plastikoak kendu ziren eta elizako bi ateak zabaldu bentilazioa errazteko. 22an berriz, andamioak kendu ziren. Dena den, 2. fasea egiteke dago. "Fase prebentibo" bat izango da eta denbora gutxi barru ekingo zaio. Dena den, fumigazio lan guzti hauek ez dute sitsen behin betiko desagerpena ziurtatzen, baina portzentaia altu batean, denbora luze batean hauen desagerpena lortzen dute. Lan guzti hauen ondoren, erretaularen errestituzioa egingo da.

**ARRASATE  
PRESS**

**HARPIDETZAK**



**77 08 15**

**HIES EKIMENA**

**Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.**

**Tfnoa: 79 26 99**



**PEUGEOT · TALBOT**

Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**


Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

• ESAERA ZAHARRA •

"Liburu bat behin baino  
gehiagotan irakurrita  
gozatzen ez baduzu,  
alperrik da behin  
irakurtzea."


OSCAR WILDE

• JEROGLIFIKOA •



Nola dago arbola?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. J. M. Velez de Mendizabalen liburua. 8. Ohiturak. 9. Horoskopo zeinua. 10. Arrasate Euskaldun Dezagun. 11. (Ald.) Ibilgailu marka bat. 13. Tripa handia duen pertsona. 15. Alkoholiko anonimoak. 16. Espainiako polizi gorpuz bat. 17. Gatzartu.

**Bertikalak** 1. Mexikon, bere hiriburua Merida da. Atsotitz. 3. Galant. 4. Kataluniako CIUko Unioren siglak. 5. Janari eta edariaren kontrola. 6. Zelanda Berriko mendiak. 7. Zerbaitetarako une egokia. 12. Pozoi. 14. Palestinarekin Askapenerako Erakundea.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Bukatu zaizkizu aurtengo parrandak datorren udaberrirarte.

**Taurus** Bizitza zurekin ez dela zuzena iruditzen zaizu, baina oso oker zaude.

**Gemini** Ezkutuan egiten dituzun gauza horiek jende aurrean egiteko ez izan lotsarik.

**Cancer** Norbaiten beharrea zaude.

**Leo** Lan bat aurkituko duzu; nahiz eta oso ona ez izan, onartu.

**Virgo** Mendiko haizea hartzea komeni zaizu, asteburu honetan badakizu zer egin.

**Libra** Erre ezazu gutxiago.

**Scorpio** Haginetako mina ez da ezer datorren astean izango duzunarekin gonbaratuz.

**Sagitaris** Izango duzun bazkariko arrain-zopak ez dizu batere onik egingo.

**Capricorn** Zutaz inor ez dela arduratzen uste duzun arren, denek izugarri maite zaituzte.

**Aquarius** Betaurreko lodiagoen beharrea zaude.

**Piscis** Gogoan eduki egunkarian gezur galantak ere etortzen direla.

Azaroaren 6an, zapatuan  
Gaueko 10,30etan  
Amaia Antzokian

Prezioa: 500 PTA.

300 PTA. (Gazte Txartelaz)

400 PTA. (aldez aurretik)


Non erosi: AEDn, Hiren...



10 URTE EGUNEZ EGUN, ARRASATE EUSKALDUNTZEN



· RAFA GARAIEN GOMENDIOA ·



Eguneroko lanordue-  
tatik kanpo norbere  
afizioei denbora bat  
eskaintzea gomen-  
datzen digu Rafak.  
“Egunero lanetik  
deskonektatzeko,  
gaur egungo estre-  
setik eta tentsioeta-  
tik deskonektatze-  
ko”. Berak musika  
atsegin du, eta  
musikaren artean  
trikitixa. Egunero  
orduerdin inguru  
eskaintzen dio;  
afizio horretara  
“engantxatuta”  
dagoela aitortzen  
du. Musikazalea izan  
eta ikasiko lukeena-  
rentzat, gainera,  
Arrasaten badagoela  
aukerarik iruditzen  
zaio, “adinak ez du  
mugarik”.

· PROGRAMAZIOA ·



- 31 Igandea**  
8.30etan  
Astebete (errepikapena).  
9.00etan  
Mondragol. Itxaro Zubillagarekin
- 2 Asteartea**  
1.30etan  
Eguerdiko Berriak  
1.35etan  
Mondragol (errepikapena).  
8. 8.30, 9etan  
Berriak  
9.30etan  
ATBketan lehiaketa.  
10.00etan  
Gaeko pelikula: “Gremlinak”
- 3 Asteazkena**  
1.30etan  
Eguerdiko Berriak.  
1.35etan  
ATBketan (errepikapena).  
8. 8.30, 9etan  
Berriak  
9.30etan  
Tertulixan  
10.00etan  
Gaeko pelikula: “Zergatik  
Panpox”
- 4 Osteguna**  
1.30etan  
Eguerdiko Berriak  
1.35etan  
Tertulixan (errepikapena).  
8.8.30,9etan  
Berriak  
9.30etan  
Bakarka. Joan Martin Elexpuru  
idazlearekin.  
10.00etan  
Gaeko Zinea: “Oliver Twist”
- 5 Ostirala**  
1.30etan  
Eguerdiko Berriak  
1.35  
Bakarka (errepikapena).  
8.8.30,9etan  
Berriak  
9.30etan  
«Astebete». Mikel Irizarren saioa  
10.00etan  
Gaeko Zinea: “Nolakoak diren  
zelulak eta itsasoko bizia”. Doku-  
mentala.

· KOMIKIA ·



· SOLUZIOAK ·

JERROLIFIKOA  
Tente.  
Okasioa. 12. Eden. 14. Pac.  
Handi. 4. Udc. 5. Dieta. 6. Aorangi. 7.  
Bertikalak 1. Yucatan. 2. Esacra. 3.  
Tripani. 15. Aa. 16. Geo. 17. Zetina.  
ak. 9. Cancer. 10. Aed. 11. Seat. 13.  
Horizontalak 1. Yehuda. 8. Usadio-  
GURUTZEGRAMA

Ongi aukeratu ahal izan dezazun

Gizonezkoentzako  
erropa

**Egizabal**

Gizonezko eta  
emakumeentzako  
oinetakoak

Bidekurutzeta, 13 Tfnoa: 76 12 28 BERGARA

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR



## SUKALDE LILURAGARRIAK!

### SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g  
**ARRASATE**  
Tfnoa: 79 00 43

Ipeñarrieta, 5  
**URRETXU**  
Tfnoa: 72 50 75

### BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52  
**ARRASATE**  
Tfnoa: 79 99 42